

Kultura

Eguaztenean aurkeztuko dute 'Sanctuaire' filma Zinemaldian. Felix Arkarazo eta Eneko Sagardoy durangarrek dihardute bertan, aktore lanetan. > 11



JAIK!

IURRETA

“Ez da bidezkoa. Egun hauetan gertatu denak ez dauka zentzurik”

Guardia Zibilak martitzen goizean atxilotu zituztenetik eguazten iluntzean Otxandiora itzuli ziren arteko egun biak zelan bizi izan zituzten kontatu diote Aitor Uribek, Amaiur de la Callek eta Miren Soloetak ANBOTOri. Bizitakoak “euren ideietan indar handiagoz berresteko” balio izan diela adierazi dute. > 4

Begoña Sopelanaren oroimenezko monumentua, El Salvadorren > 6



Durangaldea errefuxiatuak hartzeko prest

Zornotzako, Durangoko eta Berrizko udalak errefuxiatuak hartzeko prest agertu dira. Babes hori eraginkorra eta iraunkorra izan dadin, bakoitza bere esku dituen baliabideak aztertzen dabil. > 2-3

EFE

Chimeneas
Cerámicas **MACOBER**
Sanitarias

MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

90 GRADU
LAN BERTIKALAK
TRABAJOS VERTICALES

**FATXADA ETA PATIOEN
KONPONKETAK ETA MARGO LANAK**
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Tel.: 616 413 660
info@90gradu.com
Bernagoitia auzoa, 14 - ZORNOTZA

ALDAMIORIK GABE

Durango > 8

Jai eremuen aldaketa izango da aurten jaietako nobedadea

Atxondo > 9

Euskal Herriko Ardi Txakurren Txapelketa jokatu dute, Axpen

Zornotza > 10

Tantortako bizilagunak auzoa hobetzeko neurri eske

Elorrio > 6

Hildako mendizaleak oroituko dituzte Betsaiden, domekan

Herririk herri

Durangaldea errefuxiatuak hartzeko prestatzen dabil

Durangoko, Zornotzako eta Berrizko udalak errefuxiatuak hartzeko prest daude



Zornotzan, astelehenean egin zuten ez ohiko bilkuran onartu zuten errefuxiatuen aldeko udal adierazpena.

ERREPORTAJEA J.G. / M.O.

Siriako gerratik eta pobreziatik ihesi Europara datozen errefuxiatuen irudiek mundua aztoratu dute. Aldi berean, Europaren aurpegi on eta txarrak azalera-tu dira; herritar eta udal ugari errefuxiatuei babesa emateko borondatez agertu diren bitartean, lider politikoak berandu eta akordiorik lortu ezinik ibili dira. Gainera, Europa barneko hesiak altxatzen ere hasi dira, eta errefuxiatuek kontrol eta oztopo ugari dituzte bidean. Baina, asko izango dira helburua lortuko dutenak, eta, ondorioz, Durangaldea ere errefuxiatuak hartzeko prestatzen dabil.

"Merezi duten harrera"

Momentuz, hiru udalek agertu dute publikoki errefuxiatuei laguntza emateko borondatea. Durango, Zornotza eta Berriz dira udal horiek, hain zuzen. Edo-

zelan ere, hurrengo egunetan udal gehiagotan aztertuko dute gaia. Errefuxiatuei elkartasuna erakutsi diete Durango, Zornotza eta Berrizko udalek, eta "merezi eta behar duten harrera" egin gura diete, onartutako adierazpenetan azaldu dutenez. Babesa "eraginkorra eta iraunkorra" izan dadin, eskura dituzten baliabideak aztertzen hasi dira, hala nola, etxeak, nahiz eta oraindik erabaki zehatzik ez egon.

Dinamika hori guztia Eusko Jaurlaritzagaz eta erkidegoko beste erakundeekin koordinatzeko prestutasuna azaldu dute hiru udalek.

Bizkaian, 520

Joan zen astean batzartu ziren, lehenengoz, Jaurlaritzako, hiru aldundietako eta Eudeleko ordezkariak, koordinazio lanetako lehenengo erabakiak

hartzeko. Bertan, "autonomia erkidegoa 1.000 errefuxiatu hartzeko egoeran" dagoela ondorioztatu zuten. Kopuruaren banaketa herrialdeka eginez gero, Bizkaian 520 jasoko direla aurreikusi zuten, Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunek ohar bidez esan dutenez.

Errefuxiatuei elkartasuna erakutsi diete Durangoko, Zornotzako eta Berrizko udalek

Gaia koordinatu eta gestionatzeko, erakunde arteko batzorde berezi bat sortzea ere erabaki zuten batzarrean, eta, bertan, Sergio Murillo durangarrak parte hartuko du, Bizkaiko Gizarte Ekintza saileko zuzendaria da eta.

"Espainiak badu gaitasuna errefuxiatuak hartzeko; borondatea da behar dena"

Javier Canivell CEAREko (Errefuxiatuei laguntzeko Batzordea) zerbitzu juridikoko koordinatzailea da

> ERREFUXIATUAK J. G.

CEAREN zein datu duzue EBean eskatzen diren nazioarteko babesen inguruan?

2014an Espainiako Estatuan 5.947 pertsonen nazioarteko babesa eskatu zuten. Horietatik, 384 errefuxiatu estatutu (122 siriarrak) eta 1.199 babes subsidiario onartu zituzten (1.040 siriarrak). Espainiak Europako Batasuneko eskaeren %0,95 jaso zuen iaz.

Eta EBko beste herrialde batzuetan?

Guztira, iaz, 625.000 pertsonen eskatu zuten babesa Europako Batasunean. Espainian ia 6.000 eskaera egin ziren, Alemanian 200.000, Suedian 80.000, Italian 65.000, Frantzian 62.000, Hungarian 42.000, eta Ingalaterran 32.000 jaso zituzten.

Espainiako Estatuko ratioa Europako baxuenetarikoa da?

Espainiako Estatu oso atzean dago 2014ko zerrenda horretan. Horregatik diogu, oraindik gaitasun handia duela pertsona errefuxiatuak hartzeko. Borondate politikoa da falta duena.

Pertsona bat heltzen denean, babesa eskatzen duenean, zein arazoren aurrean egoten da?

Arazo nagusia hona heltzea da. Hasieran, jatorrizko herrialdeetik ihesi irtetea eragin duen arazoa dago. Ondoren, hona etorri arteko bidean aurkitzen ditu zailtasunak. Europako Batasuna gotortu egin da migrazioa geratzeko, eta, ondorioz, ihesi doazenak ezin dira herrialde seguruetara sartu. Mugak, harresiak eta hesiak gainditu, eta bisak lortu behar izaten dituzte. Horregatik, esta-

"Giza eskubideak bermatuko dituen asilo eta migrazio politika berri bat eskatzen dugu"

"EBera heltzeko, mugak, harresiak eta hesiak gainditu, eta bisak lortu behar izaten dituzte"

tuan nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen ratioa oso baxua da.

Zenbaki dantza handia entzuten ari gara Europako Batasuneko herrialde bakoitzak jasoko dituen errefuxiatu kopuruaren inguruan. Zenbakiez hitz egin daiteke? Nahikoa da horrekin?

Espainiak neurri lotsagarria hartu zuen hasieran, babestuko zituen pertsonen kopurua 'zuhur murriztuz'. Batzordeak 4.288 lagun hartzea eskatu zion, eta 2.738 bakarrik hartuko zituela erantzun zuen hasieran. Orain, gizarteak modu solidarioan erantzun duenez, horrek presioa sortu duela ematen du. Horren eraginez, badirudi Europako Batzordeak esandako kopurua onartuko duela. 15.000 izango dira. Nahikoak dira? Behar duten guztiak jasotzea izango litzateke nahikoa. Era berean, siriarrak buruz hitz egiten den moduan, munduan dauden beste 35-36 gatazkei buruz ere berba egin beharko

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko irailaren 18a,
13. urtea - 602. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea Arrinda.

Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.

Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onandia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.

Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





Javier Canivell, CEAREko kidea.

litzateke. Beraz, oraindik asko dago egiteko.

Espainiako gobernua errefuxiatuekin konprometituta dago?

1951ko Ginebrako Konbentzioko kide izanda, konpromisoa izan beharko luke beharrian hori duten pertsonen babesa emateko. Gertatzen dena da, jartzen diren zailtasunak oso handiak direla. 600 plaza baino ez zeuden orain arte.

Zeregin handia dago arlo honetan.

Urteetan, giza eskubideak bermatuko dituen Europa mailako asilo eta immigrazio politika berri bat eskatzen ari gara CEAREtik. Era berean, beharrezkotzat jotzen dugu erreskate eta salbamendu operazio eraginkor bat martxan jartzea, mediterraneoan gertatzen ari diren heriotzak saihesteko. Neurri zehatzekin asilo eskubiderako sarbidea erraztea ere ezinbestekoa da. Horretarako, berrikapenerako politikak martxan jarri ahalgo lirateke. Esate baterako, enbaxada eta kontsulatuetan

“

Herri instituzioek ere lan handia egin dezakete errefuxiatuak hartzeko”


asiloa eskatu ahal izatea, bisa humanitarioak sortzea, igartzeko bisak kentzea... Azkenik, pertsonen lekualdatze behar-tuak eragiten dituzten arazoiei heldu beharko litzaieke.

Herri instituzioek, zelan lagundu dezakete?

Ardura handiena Estatuko gobernuarena da. Bera da konprometitu dena. Herri instituzioek ere lan handia egin dezakete errefuxiatuak hartzeko. Besteak beste, udal etxebizitzak bideratu ditzakete, eta erroldatzeko aukera eskaini; sentsibilizazio kanpainak egin ditzakete, adierazpen instituzionalak egin, edota babes-gune egonkorrak sortu. Gauza asko egin daitezke.

“Francorentzat desprestigioa zen umeak kanpora ateratzea”

Gregorio Arrienek Britainia Handira ebakuatutako umeen gaia ikertu du



Memoria historikoaren berreskurapenean lan handia egin du Arrienek.

> ERBESTEA Jone Guenetxea Milaka euskal herritarrek ezagutu zuten erbestea 36ko gerran. Ebakuatutako asko umeak izan ziren. Gregorio Arriena teologo eta apaizak (Kortezubi, 1936) Britainia Handira ebakuatutako umeen istorioa ikertu du ‘iSalvad a los niños! Historia del Exilio Vasco en Gran Bretaña, 1937-1940’ liburuan.

1937ko maiatzetik urrira arte, Asturias jausi arte, errefuxiatuz betetako 16 itsasontzi irten ziren kostaldetik, etenik barik. Zenbat erbestera ziren?

Ez naiz zenbaki bat esatera ausartzen. Erroldak atzerrira joan eta gero egin ziren, bertan ez zelako zenbaketa egiteko asirik izan. Ingalaterrara joan ziren umeen zerrenda baino ez zuten egin: 3.861. Gainontze-koak, Frantziara, Kataluniara, Belgikara, Errusiara, Suitzara, Danimarkara, Mexikora... joan ziren.

Zenbaki polemikoa izan zen? Ebakuatutako umeen kopurua

beste errefuxiatuena baino polemikoagoa izan zen Francoren eta Euskal Herriko gobernuaren artean. Izan ere, umeak kanpora atera beharra desprestigioa zen Francorentzat. Beraz, zenbakia bajatu egin zuten, 12.000ra. Gurek zenbakia bikoiztu egin zutela esango nuke. Nik 25.000-30.000 ume inguru izan zirela esango nuke. Hala ere, ez naiz datu hori idaztera ausartzen, susmoa baino ez delako. Ez daukat datu objektiborik.

Zergatik ez dago datu zehatzik?

Oraindik hasi baino ez garelako egin exilioa ikertzen. Historialari gutxi ari dira gai hau ikertzen. Umeen arloan, Iparraldera zenbat joan ziren, oraindik ez dakigu. Beti interesatu zait gai hori. Han ere, hainbeste kolonia egon ziren.

Herrialde bakoitzak errefuxiatuak antolatzeko bere modua izan zuen?

Bai. Frantziak, adibidez, Santurtitik, Santanderretik, Asturias-

tik joandakoak hartzen zituen, baina exilio nahasia izan zen.

Eta Ingalaterrak?

Ingelesak, beraiek etorri ziren hona, hara joango ziren umei banan-banan osasun azterketa eta zerrenda egitera. Itsasora irteteko, beraien itsas armada-ko flota ekarri zuten. Izan ere, irteteko bide bakarra itsasoa zen, eta blokeatuta zegoen. *Destroyer* bi ondoan joaten ziren, itsaso zabalera irteten arte.

Zergatik esaten zieten umei “ebakuatu”, eta ez “exiliatu”?

Euskal Gobernuak antolatutako espedizio bereziak izan zirelako. Gurasoek ez zuten joateko lekurik izan. Britainia Handiak, adibidez, ez zuen errefuxiatu nahi. Nagusiak joanez gero, iraunkortasuna izan zezaketen, eta han gelditu. Umeak, ostera, itzultzeko joan ziren. 1940an, ia denak bueltatu ziren. 500 lagun han gelditu ziren. Izen ezagunak gelditu ziren. Besteak beste, Alberdi eskultorea, eta futbolariak ere bai.

ALBERDI
HARATEGIA



Askatasun etorbidea, 1 DURANGO · Tel.: 946 817 658
Sabino Arana, 1 ZORNOTZA

- Zornotzara ere heldu gara-

ETXEKO TXORIZO
ONENAREN SARIA

2014-2015
VILLA DE BILBAO

ODOLOSTE
ONENARI SARIA

2013 BIZKAIKO ODOLOSTEEN
MUNDUKO TXAPELKETAKO
IRABAZLEA

2014 ELORRIKO
BUZKANTZA JAIKO
ODOLOSTE ONENA



Amaiur Lopez de la Calle, Miren Soloeta eta Aitor Uribe, eguaztenean, Otxandiora heldu ostean.

“Egoera honek eta bizitakoak gure ideietan berresteko indar gehiago ematen digu”

Atxilotuta eman dituzten uneak zelakoak izan ziren kontatu dute hiru otxandiarrek

OTXANDIO Joseba Derteano Asier Duran, Amaiur Lopez de La Calle, Miren Soloeta eta Aitor Uribe eguazten iluntzean heldu ziren Otxandiora. Plaza bete jendek ongietorria egin zien. Senitarteko eta lagunekin egon ostean, Duranek etxera joan behar izan zuen, oso nekatuta zegoelako. Urtzi Armendariz alkateak gaia kanpotik zelan bizi izan zen azaldu zien gainerako hirurei: gaztetxeko miaketa, udalbatzarrean aho batez onartutako mozioa, atxilotetak salatze egindako manifestazioan batutako jendetza... Horren ostean, hirurek egoera barrutik zelan bizi izan zuten azaldu zioten ANBOTORI:

Zelan eman ziren atxilotetak? **Aitor Uribe:** Ni atxilotu ninduten lehenengo. Otxandiotik kilometro bira bizi naiz, eta tarte hori iluna da gauez. Lanera bidean nindoan. 05:50 inguru zen, eta atzetik auto bat jarraitzen hasi zitzaidan. Ondoren, aurrean beste auto bat gurutzatu zitzaidan. Jaisteko esan zidaten. Lehen momentuan, pistolaz apuntatu ninduen batek, eta, ondoren, gorde egin zuen. Eskuburdinak jarri zizkidaten. Autoa interbenituta zegoela esan, eta mugikorra eta gainerakoak kendu zizkidaten. Handik, Gasteizko kuartelera eraman ninduten, eta, ondoren, gaztetxera ekarri. Jasotako tratua egokia izan zen. **Miren Soloeta:** Jasotako tratua... zuzena dela diogu, bada-

“**M. Soloeta:** “Ez da bidezkoa. Egun hauetan gertatuak ez du zentzurik”

kigulako herri honetan zer bizi izan den Guardia Zibilararen eskutik. Torturarik ez dugu jaso, baina atxiloteta bat gogorra da, berez. Uneoro burua beherantza, oihuka berba egiten dizute, ez dute informazio argirik ematen... gogorra da, berez. Atxilotetari buruz, ume bi ditut, eta 08:50ean, eskolara bidean gindoazen beste guraso batzuekin. Banekien beste hirurak atxilotu zituztela. Hiru pertsona kaleko jantzita hurreratu, izena gal-

detu, bazter batera mugitu, eta atxilotu egin ninduten. Umeen aurrean izan zen. Ni ez ninduten kuartelera eraman, inguruan bueltaka ibili ginen, autoz.

Amaiur Lopez de la Calle: Asier (Duran) Iurretan atxilotu zutela jakitean, laguna dudan heinean, bere etxera joan nintzen, korrika —gertu bizi da—, banekielako miaketa egin zezaketela. Han, itxaroten nengoela, auto bat parean arin erdi gurutzatu, besotik heldu, eta tiraka kotxera sartu ninduten. Une horretan, nebarekin mugikorraz berbetan nenbilen, Aitorri abokatua kudeatu nahian, besteak beste. Mugikorra kendu, baina ez zuten itzali, eta nebak hasierako minutuak entzun zituen. Irten arte ez dut hori jakin. Une estua izan zen. Komunikatuta nengoen ala ez galdetu nuen, baina ez zidaten esaten. Gasteizera heltzean ea mediku azterketarik egin nahi nuen galdeztu zidaten, eta, nire egoera zein zen ez nekienez, egitea erabaki nuen, orduko nire egoeraren konstantzia bat egon zedin, badaezpada.

Eta Madrilen?

A.U.: Espetxera sartu, eta mediku azterketak egin zizkiguten. Ondoren, berriz espetxera. Gauez lasai lo egin ahal izan dugu.

A.L.C.: Laburbilduz, deklarazioan esan dugu oroimenerako ekitaldi bat zela egun hartan egin zena, eta argitu gabeko kontuak daudela Luziaren heriotzaren inguruan. Hori argitzea eskatzeko modu bat zela. Bestetik, esan nien lotsagarria iruditu zitzaidala deklarazioa hartzeraz eramateko modua: gure herrian eta inguruan, goizaldean, eta baldintza horietan. Gehiago ez nuela erantzungo gehitu nuen.

A.U./M.S.: Bai, guk ere ildo bereetik erantzun genuen.

Abokatuarekin egon zineten? Komunikatuta egon zineten?

M.S.: Martitzen gauean bi-hiru minutu baino ez ginen egon abokatuagaz, hurrengo eguneko deklarazioa prestatzeko.

A.U.: Gauzak arin gertatu dira, eta abokatuak ez zuen astirik izan autoa irakurtzeko, beraz ezta gure defentsa prestatzeko ere.

A.L.C.: Komunikatuta geundenez, polizia-deklarazioa egitean abokatua presente izan zen. Une horretantxe egon ginen beragaz. Uko egin genion deklarazioa egiteari. Ostean, tarte bat izan genuen abokatuagaz. Hurrengo, abokatuagaz, Audientzia Nazionalean egon ginen.

Bizitakoak zer gogoeta uzten dizue?

M.S.: Estatuaren indarra gain-gainean sentitu dut. Zer hausnarketa? Ez dugula hainbesteko kalterik egin horrelako erantzuna jasotzeko. Ez da batere bidezkoa izan. Egun hauetan gertatu den guztiak ez dauka zentzurik.

A.L.C.: Estatuak errepresiorako eta isilarazteko erabiltzen duen bide bat pertsonalki bizi izan dut. Euskal Herriko errealitate bat isilarazi eta ezabatzeko helburuz. Egoera honek, eta bizitakoak, indar gehiago ematen digu gure ideietan berresteko.

Gazteak lanerako prestatuko dituzte

Gazteei lana topatzen laguntzeko zortzi ikastaro eskainiko dituzte, Amankomunazgoak sustatuta

DURANGALDEA M. O.

Amankomunazgoaren bidez, *Jar zaitez martxan* programa hasi da berriro Durangaldean. Gazteen lana lortzeko gaitasunak hobetzea, orientazioa ematea, eta enpresak sortzeko laguntza eskaintzea dira eki-

menaren helburu nagusiak. Atzo aurkeztu zuten, prentsaren aurrean, datozen hilabetetarako programa.

Lana topatzen laguntzeko zortzi ikastaro edukiko dituzte aukeran 16 eta 29 urte arteko gazteek. Ikastaro bakoitza 44

orduko izango da, eta, Durangon, Zornotzan eta Ermuan eskainiko dira. Hainbat balio landuko dituzte ikasleek: motibazioa, komunikazioa, lidergoa, erabakiak hartzea, gatazkak ebaztea, taldean lan egitea, eta trebetasun sozialak, esate baterako.

Bestalde, enpresa berriak sortzen laguntzeko aholkularitza emango diete gazteekin.

Proiektuak 187.000 euroko aurrekontua dauka, eta Bizkaiko Foru Aldundiak %70 ordainduko du.



Programaren aurkezpena egin zuten, atzo, Behargintzaren egoitzan, Durangon.

EPOCA

**ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK
ALTZARIAK - DEKORAZIOA**



Zuk nahi duzun etxea egiten lagunduko dizugu



Madalenoste, 7
Tel.: 946 472 012
epoca@epocasukaldeak.com
48200 **DURANGO** Bizkaia

www.epocasukaldeak.com

jarrai gaitzazu Facebook-en!

 [epoca.goro](https://www.facebook.com/epoca.goro)

San Juan, 5
Tel.: 943 700 216
20600 **EIBAR**
Gipuzkoa





Goian, monumentua. Behean, eskuinean, Begoña Sopelana.



Goiuri Sopelana Las Vueltaseko udal ordezkariarekin Iurretan, astelehenean.

Bego Sopelanaren oroitzapenak bizirik dirau Las Vueltas herrian

Monumentua inauguratu dute El Salvadorren Bego Sopelanaren oroimenez

IURRETA Jone Guenetxea Gerra sasoiari heldu zen Begoña Sopelana El Salvadorrera, 1987an. Gerraoste gogorrean Las Vueltas herria hutsetik erakitzeari ekin zion Sopelanak bertako herritarrekin batera. Iurretarrak sei urte eman zituen Las Vueltasen. Denbora horretan Begoñak ereindako haizak fruituak ematen jarritzen duela gogorazi du Rosa Cándida Alas de Menjívar Las Vueltas herriko alkateak Iurretara egindako bisitan. Sopelana familiarekin batera, Begoñak herritarren

jabekuntzan egindako ahalegina gogora ekarri du alkateak. “Sasoi hartan Begok idazten eta irakurtzen irakatsi zien gazteak gaur egun irakasleak dira. Beraz, Begok irakatsitakoari jarraipena ematen ari dira. Era berean, Begok emakumeen jabekuntza eta lan komunitarioa bultzatu zituen”.

Memoria berreskuratuz

Ekoturismo arloan proiektu komunitarioa jarri dute martxan Las Vueltasen. Testuinguru horretan, memoria historikoa

berreskuratzeke ahaleginean dihardute. “Belaunaldi berriei Bego Sopelana eta Pakito Arria-

Monumentuan, gerran hildakoen izenez gainera, Arriaranen eta Sopelanaren bustoak daude

ran nortzuk ziren azaldu gura diegu, beraien oroitzapenari bizirik eusteko”, dio alkateak. Egitasmo horren barruan, mo-

numentua inauguratu dute. Gerran hildako herritarren izenak gogora ekartzeaz gainera, Sopelanaren eta Arriaranen bustoak jarri dituzte.

Inaugurazioan jende ugari parte hartu zuen maiatzaren 13an. “Ekitaldi berezia izan zen, Sumpul errekararen ondoan gertatutako sarraskiaren urteurrena gogora ekarri genuen eta. 1980an Honduraseko mugan gerratik ihesi zihoazan 600 errefuxiatu hil zituzten bertan indar armatuek”, dio alkateak.

Iurretara bidia

Begoren familiak emozioz bizi izan du Las Vueltasetik etorritakoen bisita. “Herritarren esker ona adierazten zuen bideoa erakutsi ziguten, eta poztasunez bete gintuen”, azaldu du Goiuri Sopelana Begoñaren ilobak.

Zerbitzua hobetu guran, Kzgunera lekualdatuko dute ludoteka

IURRETA Aitziber Basauri Ludotekak kokapen berria izango du epe laburrean. Ibaurretxe kultur etxean egoten jarraituko duen arren, Kzgunera lekualdatuko dute. Zerbitzu hobea eskaini guran hartu dute erabakia. Horrela azaldu dute udal arduradunek. Espazioa egokitzeko eta argi gehiago emateko lanak egingo dituzte Kzgunean, ume gehiago egoteko aukera emanez. Umeak jarduteko “leku handiagoa eta hobea” eman guran erabaki du lekualdatzea Iurretako Udalak.

Frontoian berrizte lanak

Bestalde, Olaburu frontoiko berrizte lanak ere amaitzeaz daude. Aldagelak berriztu gura izan dituzte, eta irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa lortu. Uztailean hasitako lanotarako, 48.786 euroko aurrekontua izan dute. Barruko tabikeak bota dituzte aldagelak handitzeko, eta, dutzak eta komunak bereizteko, panel fenolikoak jarriko dituzte.

Aluminiozko egitura duten altzariak jarri dituzte, eta panel fenolikoak ipiniko dituzte, jarleku moduan. Aireztatzeko sistema berriztu, eta termoelektrikoaren edukiera handitu dute. Ur zikinen ebakuazioa eta lokalaren isolamendua ere hobetu dituzte.

Urriari hasiko dituzte dantza eta zeramika ikastaroak

BERRIZ A.U.

Laster, dantza ikastaroak eta zeramika ikastaroak hasiko dituzte Berrizen. Urritik ekainera egingo dituzte ikastaroak, eta izena irailaren 30a arte eman daiteke kultur etxean. Dantzari dagokionez, hutsetik hasteko salsa eta sabel dantza ikastaroak egongo dira, eta salsa eta areto dantza ikastaro aurreratuak ere bai. Zeramika ikastaroak Lupetza elkarteak eskainiko ditu, eta helduentzako talde bi egingo dituzte.

Zeramika erakusketa

Gaur, Carmen Perez Martin artisau durangarraren zeramika erakusketa jarri dute kultur etxean. Urriaren 2ra arte egongo da ikusgai, iluntzetan.

Hildako mendizaleak oroitzeko dituzte

08:30ean ipini dute mendira joateko hitzordua

ELORRIO M.O.

Domeka honetan, Oroitzapen Eguna burutuko da Betsaiden, hildako mendizaleak oroitzeko helburuz antolatzen den ekitaldia, hain zuzen ere. Erdella Mendizale Taldeak antolatzen du, Arrasateko eta Aramaioko taldeekin batera, eta, aurten, elorriarrei tokatu zaie ekintzak koordinatzea. Goizeko 08:30ean ipini dute mendira joateko hitzordua, plazan.

Tontorrera ailegatu, eta txistulariek eta txalapartariak girotuko dute harrera, 10:30ean. 11:00etan, meza egongo da, eta, 11:30ean, Euskal Mendi Federazioko presidenteak berbaldia emango du. 11:45ean, Gurutze Gorriak mendiko erreskate baten simulazioa egingo du, eta os-

tean, 12:00etan, dantzarien eta txistularien saioa etorriko da. Antolatzaileek azaldu dutenez, txosna ipiniko dute, jatekoagaz eta edatekoagaz.

Bestalde, hurrengo domekan egingo da Elorrioko XX. Bira,

Tontorrera ailegatu, eta txistulariek eta txalapartariak girotuko dute harrera, 10:30ean

hau ere Erdellaren eskutik. 07:30ean hasiko da ibilbide luzea, eta 09:00etan txikia. Aurretik ere eman ahal da izena, 675 713 708 telefonora deituta.

Santa Katalina ermitako jaia ospatuko dute domekan

GARAI M.O.

Domeka honetan, irailaren 20an, Santa Katalina ermitako jaia ospatuko dute garaitarrek. Dantza saioak edukitzen du protagonismorik handiena jaialdi honetan, auzoko eta inguruetakoko dantzariak parte hartzen dutelako. Ekitaldi berezia izaten da domekakoa, gertuko herritarrek dantza egiten ikusteko aukeragatik.

Goizean burutuko dira jaialdiko ekintzak. Lehenengo, meza egongo da; hain zuzen ere, Garaiko meza Santa Katalina ermitara lekualdatuko dute jaiaren aitakian. Gero, dantzarien saioa etorriko da, eta amaitzeko, luntxa ipiniko dute Santa Katalinara joaten direnentzat.

Urriko jaiak antolatzeke batzarra deitu dute

MALLABIA M.O.

Urriko jaiak ate joko dauden honetan, egitaraua presartzeko batzarra deitu dute irailaren 23rako. Hitzordua Kontzejuzarra areto berrian jarri dute, 19:00etan. Kultur

Herritar guztiak eta elkarteetako ordezkariak irailaren 23ko batzarrera gonbidatuta daude

arduradunek azaldu dutenez, herritar guztiak eta elkarteetako ordezkariak batzarreara gonbidatuta daude. Jaiak urriaren 23tik 25era ospatuko dituzte.



dagoeneko
%80
baina gehiago
salduta
dago

**azken
aukerak
ez galdu**

ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuena ren arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdeguneak eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU

www.solvias.es Sabadell Guipuzcoano



946 46 20 41
www.sukia.com



sukia Zure etxean zaude
Estás en tu casa



Martitzenean egin zuten jaien aurkezpena, udaletxean.

Jai eremuen aldaketa, aurtengo nobedadea

Txosnagunea Landako Gunean egongo da aurturten

DURANGO Markel Onaindia Aurtengo San Fausto jaietako nobedadea jai eremuen aldaketa izango da. Txosnagunea Landako Gunean kokatuko da, eta, ondorioz, bertan egiten ziren ekintza asko Ezkurdira lekualdatuko dituzte. Hori gertatuko da, adibidez, marmitako txapelketagaz.

Txosnagunea Landako Gunearen barrualdean zein kanpoaldean kokatuko da. Kanpoan karpeta bat egongo da, adibidez, eta eskenatoki txiki bat ere bai. Gainera, ekitaldi asko kanpoan egingo dituzte txosna batzordekoek, eguraldiak lagunduz gero.

Bestalde, Herria auzo elkar-teak jaurtiko du txupinazoa,

urriaren 10ean. 38 urtean egingandako lana nabarmendu zuen asteleheneko prentsurrekoan Iker Oveja zinegotziak: "Auzoaren hobekuntzaren alde lan egiten jarraitzen du, besteen beharrak ahaztu barik". Txupinazo txikia Uztai gimnasia taldeak botako du.

Jaiak iragartzeko kartela Virginia Gonzalez 20 urteko durangarrak landu du. 3.571 boto eman zituzten herritarrek bost kartel onenen artean aukeratzeko, eta irabazleak 1.531 boto jaso ditu. Hiru aste baino ez dira falta jaiari hasiera emateko.

Duranguesa eredu da mugikortasunean

Mugikortasun Asteko saria jaso du Duranguesak



Josu Atxotegi, ezkerretik bigarrena, antolatzaileekin batera.

DURANGO M.O.

Mugikortasun Astea martxan dago Durangon, eta, eguaztenean, Mugikortasun eredugarriaren Sustapenaren saria eman zion udalak Duranguesa txirrindulari elkarteari. Kontzientziario kanpainetan laguntzeagatik jaso dute saria, adibidez. Josu Atxotegik hartu zuen saria, eta elkarteko kideen lana eskertu zuen. Gainera, Durangon mugikortasun jasagarriaren alde egin daitekeen lanaz ere berba egin zuen: "Bidegorria amaitzean, Durango eredu bihurtuko da".

Bestalde, interbentzio artistikoaren saria Jon Larreategi eibartarrak irabazi du. Egunotan, bere irudiak kaleetan margotuko dituzte.

Bihar, ekitaldiek aurrera jarraituko dute, Ezkurdin, bizikleten tailer eta azokagaz.

Jabekuntza Eskolako matrikulazioa hasi da

DURANGO M. O.

Aurturten hiru ikastaro berri egongo dira aukeran emakumeentzako Jabekuntza Eskolan. *Gure genealogia feministak* ikastaroan Euskal Herriko mugimendu feministaren historia aztertuko dute; *Hiria josten* ikastaroan hirigintza genero ikuspegitik landuko dute, eta

Aurturten hiru ikastaro berri egongo dira aukeran emakumeentzako Jabekuntza Eskolan

Gure burua maitatzen ikasten, ostera, erlazioetan baloratuak edota maitatuak izan ez direnentzat zuzendutakoa da.

Guztira, 400dik gora emakumeentzako lekua egongo da ikastaroetan. Irailaren 23ra arte eman ahalko da izena, eta matrikulazioa urriaren 1etik 9ra egin beharko da.

Idoia Agorria Durangaldeko lehen senataria

DURANGO J. Guenetxea

"Ohorea da niretzat Senatuan Bizkaiko ordezkaria izatea. Ahal duduan ondoen beteko dut nire ardura". Horiak dira Idoia Agorria sozialistak, martitzenean, Madrilen, senatari kargua hartu eta gero egindako adierazpenak. 2011ko hauteskunde orokorretan, sozialisten zerrendan Bizkaiko ordezkaria izan zen. Legegintzaldi amaierara arte, Dimas Sañudoren lekua hartuko du.

Agorria Durangaldeko lehen senataria izango da. Bestalde, azken bi legegintzaldietan, Durangoko Udaleko zinegotzia izan da.

SEI HANKAKO MAHAIA

FRAN GARATE
PP



Elkartasuna eta konpromisoa

Europa giza krisi larri baten lekuko da gaur egun. Milaka pertsona euren jatorrizko herrialdeetatik ihesi datoz, hango izuak eta gerrak eraginda. Segurtasuna, askatasuna, eta giza eskubideen errespetua bermatzen duten gune bat bilatzen dute Europan. Ziur naiz durangarron eragin handia duela halako egoera dramatikoak ikusteak, pertsonak hiltzen ikusteak, eta irtenbideen bilaketan denok inplikatzeko eskatzen dugu. Arazo honek koordinaziorik handiena eskatzen du, bai Europako Batasunean bai Nazioarteko Komunitatean; baita, oro har, administrazio eta erakunde guztien, eta sozietate zibilaren kolaborazioa ere, nazio mailan.

Espainiarrek, beste behin ere, elkartasun eta konpromiso itzela erakutsi dute sufritzen dutenekin. Eta durangarrok solidarioen artean izango gara.

Krisi honi aurre egiteko, Espainiako Gobernuak kolaboratzeko prest dagoela erakutsi du uneoro, eta nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak hartzeko konpromisoa hartu du, Europako Batzordeak proposatutako kopurua, hain zuzen. Arazo honen aurrean, ezinbesteko ardura eta elkartasuna erakutsi ditu, beste hainbat arazoren aurrean zein krisi honen hasieran egin bezala.

Nahiago nuke gai hauei buruz idatzi behar ez izatea, baina, horretarako, ez lirateke gertatu behar. Jarrai dezagun denok batera lanean, gerta ez daitezen lortu arte.

Eskerrik asko Durango, zure elkartasunagatik eta konpromisoagatik.

**Erredakzioan itzulita*

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

HELDUENTZAT



ZORION KLANDESTINOA
Clarice Lispector
(2015)

UME ETA GAZTEENTZAT



NUR ETA ALTXORRAREN KUTXA
Toti Mtez. de Lezea (2015)

MUSIKA



DIANOSICK
Leuz Diwane G
(2015)

Euskal Herriko ardi txakurrik onenak Axpen lehiatuko dira, bihar

Hamaika ardi txakur batuko dira Elizaburuko landetan, 17:00etatik aurrera

ATXONDO Joseba Derteano Euskal Herriko Ardi Txakurren Txapelketa Axpen jokatu da beste behin, larunbat honetan. Antolatzaile eta parte-hartzaile

leak gustura daude azken urteetako harreragaz, eta udalaren babesak lagunduta, txapelketa Axpen egonkortu da azken urteetan.

Aurten, 49. aldia egingo du Gerediaga Elkarteak antolatutako lehiaketak. Guztira, hamaika txakur batuko dira Elizaburuko landetan, 17:00etatik



Azken urteetan, Axpen finkatu da ardi txakurren txapelketa. Gerediaga Elkarte-Txelu Angoitiia

aurrera. Parte-hartzaileen zerranda Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko txapelketetako txapeldun eta txapeldunordeek osatzen dute. Horiekin batera, 2014ko Euskal Herriko txapeldun diren *Jai* txakurrak eta Antonio Alustiza ugazabak (Areso, Nafarroa) iazko txapela defendatuko dute. Bizkaiko ordezkari biak orozkoarrak dira: Eneko Serrano *Seiko* txakurragaz, eta Enrike Mendiguren *Riki* txakurragaz. Gipuzkoako ordezkari-tza Jose Mari Bengoak (Oñati) eta Jesus Mari Plazaolak (Arrasate) osatuko dute; Arabakoa Jose Mari Jauregik (Ilarduia) eta Fidel Alonsok (Areta); Nafarroakoa Jose Mari Istilarrek (Amaiur) eta Antonio Alustizak (Areso), eta Ipar Euskal herrikoa Jean Paule Irikinek (Itxasu) eta Mitxele Atxeritogaraik (Iholdi).

Txapelketa ikusteko sarrera lau eurotan izango da; 12 urtetik beherakoentzat doan da. Axpera doazenek gazta eta ardoa dastatzeko aukera ere izango dute txapelketaren amaieran.

Komun publiko bana erabilgarri daude Arrazolan eta Axpen

ATXONDO J. D.

Axpen eta Arrazolan komun publiko bana erabilgarri daude uztail amaieratik. Inguru haietan bisitari eta mendizale dezente ibiltzen da, eta horregatik ahalbidetu ditu udalak. Arrazolan, ludoteka dagoen eraikinekoa erabili daiteke, eta Axpen, pilotalekuko aldageletakoa. Komun biak 08:00etatik 22:00etara daude zabalik urteko egun denetan. Ateko sarrailak duen sistema bati esker, atek automatikoki irekitzen dira goizetan, eta itxi gauetan.



Arrazola, komunerako eskailerak.

“Elkarren berri izateko”, Kultur arteko topaketa egingo dute, bihar

ZALDIBAR I.E.

Egun osoko plana egin dute, biharko, irailaren 19rako, Zaldibarren. Jatorri desberdinetako zaldibartarrek euren kultura erakutsiko diote elkarri, Kultur arteko jai horretan. Herriar talde batek, Zaldibarko Udalaren laguntzagaz antolatu du, eta 12:00etan hasiko da jai.

“Elkarren berri izateko, zer hoberik, elkarregaz egun polit bat igarotzea baino?”, diote antolatzaileek. Horretarako, kultura desberdinen gastronomiagaz zein musikagaz, aho eta belarriak gozatzeko aukera eskainiko dute. Leku desberdinetako jaki, dantza eta kantuak eskainiko dituzte topaketan parte hartuko duten hamaika jatorritako parte-hartzaileek.

Besteak beste, Portugal, Errumania, Nigeria, Mali, Senegal, Maroko, Mendebaldeko Sahara, Kuba, Ghana eta Euskal Herriko kulturen erakusleio izango da Zaldibarko Kultur arteko jai. Hainbat herrialdeetako dantzen eta musiken emanaldia, esaterako, bazkalostean hasiko da, 16:00etan.

Ekimen honeguz, udalak erakutsi duen “inplikazioa eskertu” dute bultzatzaileek. Baita, ekimena antolatzeko, emakumezkoen parte hartzea funtsezkoa izan dela ere.

Euskara ikasleentzat laguntzak daude

Irailaren 25era arte eskatu ahalko dituzte laguntzak

MAÑARIA M. O.

Udalak diru-laguntzak eskainiko dizkie euskara ikasten dabiltzan mañariarrei. Irailaren 25era arte eskatu ahalko dituzte laguntzak, udaletxean. Eskatzaileek nortasun agiria, ikasketak baimenaren fotokopia, matrikularen ziurtagiria, gastuak justifikatzeko agiria eta kontu korrontearen fotokopia eraman beharko dituzte udaletxera.

Bestalde, udalak informatu

duenez, Durangaldeko kiroldegietan kirola egiten dutenek ere laguntza jaso ahalko dute. Laguntza eskatzeko baldintzak euskara arloko laguntzaren berberak dira.

Aitte Kurutzeko

Domekan Aitte Kurutzeko jai ospatuko da Mañarian. 11:00etan, meza egongo da Aitte Kurutzeko ermitan, eta ostean, dantza saioa.

Ekitaldi jendetsuak eta giro ona nagusi jaietan

IZURTZA J.D.

Jaietan urterik urtera ekitaldietara hurreratzen den jende kopurua gorantz doala nabarmendu du alkateak. Azken urteetako joera dela adierazi du Lorea Muñozek. Esaterako, *Errautsetatik Erne* antzezlenerako 50 aulki prestatu zituzten, nahikoa izango zelakoan, eta 200 lagun inguru hurreratu ziren pilotalekura.

Argintxuko mus txapelketa Julio Cuestak eta Juan Luis Mandalunizek irabazi dute: Zarraitia-Conde eta Vidal-Sua-

rez bikoteak geratu dira bigarren eta hirugarren. Paella txapelketa Oier Domarcok eta Angel Gallastegik irabazi dute, eta tortilla txapelketan Javier izan da onena.



Mus txapelketa Argintxun.

Eudel erakundeko batzarkide izango da Jose Luis Navarro alkatea

ABADIÑO I.E.

Eudel erakundearen, Euskadiko Udalen elkartearen, eratze-ekitaldia hartu zuen Durangoko Landakoguneak, eguaztenean. Datozen lau urteetan erakundearen ordezkariak izango direnak hautatu zituzten batzar horretan. Durangaldeko batzordekide bakarra, tartean: Jose Luis Navarro



JOSE LUIS NAVARRO

Abadiñoko alkatea. Udalen Elkartearen Bizkaiko ordezkari-tza batzordekide izango da, beraz, datozen lau urteetan, Abadiñoko Independienteak taldeko Jose Luis Navarro.

Imanol Landa Getxoko alkatea izendatu zuten, bestalde, Eudel elkartearen presidentea. Kargu-hartze berbaldian, “ezberdinen arteko elkarrizketa eta pluraltasuna” bultzatzeko asmoa agertu zuen Landa jeltzaleak. Gainera, “herri eta hirietako udalek bizikidetzaren alde egin dezaketena” azpimarratu, eta berdintasuna eta elkartasuna bultzatzeko konpromisoa hartu zuen.

Aitte Kurutzeko jaietan ‘kamisoi eta pijama eguna’ izango dute, gaur

ABADIÑO I.E.

Aitte Kurutzeko jaietan murgilduta daude, Zelaieta auzoan. Joan zen domekan, Donien Atxa altxatu eta gero, jai egun bi ospatu dituzte, dagoeneko. Gaur, *Kamisoi eta pijama eguna* ospatuko dute. Parrillada egingo dute, 20:00etan, Lotxo taldeagaz erromeria, 21:00etan, eta umeen *patata dantza*, 22:00etan. Umeenaren ostean, 00:00etatik aurrera izango da helduen dantzarako tartea.

Biharko eta etziko ere hainbat ekitaldi antolatu ditu jai batzordeak. Bihar, 17:30ean, esaterako, umeentzako ikuskitun bat izango da Zelaietan, eta tortilla txapelketa eta kantaldiagaz amaituko dute eguna.

Umeentzako ikuskizuna, arratsaldean, eta tortilla txapelketa eta kantaldia izango dira, gauean, bihar

Domekakoa izango da Abadiñoko Aitte Kurutzeko jaietako azken eguna. Mozorro Eguna ospatuko dute egun horretan, *Afrika* gaitzat hartuta. Dantzari afrikarrek kalejira, *Maleta siku* bazkaria, eta erromeria egingo dituzte, jaiak giro animatuagaz amaitzeko.

Tantortako bizilagunek auzoa hobetzeko neurriak eskatu dituzte

Auzotarren eskaerak udaleko Hirigintza Batzordean aztertuko dituzte



Asteleheneko udalbatzarrean irakurri zituzten auzotarren eskaerak.

ZORNOTZA J.Derteano

Eroskik supermerkatu berri bat irekitzeko asmoa dauka Tantortako auzoan. Hango bizilagunek auzo elkarte bat sortu dute, eta supermerkatuaren etorrera abagune aproposa iruditu zaie auzoko gabeziak salatu, eta udalari hobekuntzak eskatzeko.

HiriEkimena plataformaren bidez egin dute. Asteleheneko udalbatzarrean Abel Isasi zinegotziak auzotarren eskakizunak jasotzen dituen testu bat irakurri zuen. Tantorta sortu zenetik, 65 urte joan direnean, oraindik "oinarrizko azpiegiturarik barik" jarraitzen dutela diote. Eskaerak Hirigintza Batzordean aztertzeagaz konforme agertu ziren alderdi denak.

Madariaga zegoen lurzorua jabetza lortu, inguruko fatxada eraitsi, eta han aisialdi gune bat egiteko eskatu dute. Oro har, kirol gune baten beharra ere ikusten dute.

Hobekuntza batzuk trafikoa eta sarrera-irteerei dagozkie. Inguru hartan dagoen Ilarduya enpresarako sarrera auzotik kendu, eta Serpinsako poligono industrialera bideratzea gura dute. Gainera, ez dute nahi Eroskiko sarrera auzotik izatea.

Inguruko auzoetarako komunikazioak hobetzea ere gura dute: ibaiaren ondotik Ixerangora arteko bidegorria eginda, eta Goma poligonotik Ogenarako bidea berriro irekita.

Aparkalekuak gehitzea eta autobus geltokia tokiz aldatzea eta hobetzea dira beste eskaera bi. Ilarduya enpresaren jarduerak legalak diren segurtatzea eta Eroskik supermerkatu berrian Tantortako auzotarrak kontratatzeako konpromisoa hartzea ere eskatu dute.

> DURANGALDEA ASTEON

Erretzeari uzteko ikastaroa aukeran

DURANGO > Durangoko Auzo Komunazgoak erretzeari uzteko ikastaroak antolatatu ditu. Urriaren 22an hasiko dira biak, eta hamar saio egingo dituzte. Urriaren 9a baino lehen, 946 200 520 telefono zenbakira deituta, edo *prevencion.mdurango@bizkaia.org* helbidera idatzita eman daiteke izena.

Ekimen solidarioak biharko eta etziko

ZORNOTZA > Tabernarien ekimenez, minusbaliatuen integratzearako elkartearantzako dirua biltzeko ekimenak egingo dituzte, bihar, Zornotzako Luis Urregoetxea kalean. Etzi ere, askotariko ekintzak burutuko dituzte kale horretan, eta biltzen duten dirua La Otra Mirada elkarteari emango diote.

Leike aroztegiaren eman dute iPad-a

DURANGO > Durangoko Leike aroztegiaren banatutako 500.913 zenbakiak eskuratu du Salerosketak Be Euskaraz ekimenaren barruan irailean zozkatutako iPad-a. Igor Ibanzeta Garate izan da sariduna. Merkataritzan euskararen erabilera bultzatzea du helburu ekimen honek.

Eskolako materiala erosteko diru-laguntzak egongo dira

Gehienez, 35.000 euroko sarrerak dituzten familientzat

ZORNOTZA J.D.

Eskolako materiala erosteko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza onartu zuten asteleheneko udalbatzarrean. Urtean 35.000 euro gordin gaintzen ez dituzten familiek eskatu ahalko dituzte. Zenbatekoari dagokionez, laguntzak 20 eta 80 euro artekoak izango dira.

Udaletik jasotako laguntza herriko dendetan gasta-

tu beharko da. Materialen barruan sartzen dira, besteak beste, papertegiko artikulua eta uniformeak. Laguntzak jasotzeko eskariak egiteko epealdia datozen asteetan jakinaraziko dute.

EAJk, PSE-EEK eta EH Bilduk alde bozkatu zuten, eta HiriEkimena abstenitu egin zen ez daudelako ados banaketa moduarekin.

Hirugarren urtez tasak eta zergak izoztu egin dituzte

Aho batez hartu zuten erabakia udalbatzarrean

ZORNOTZA J.D.

Zergak eta tasak hirugarren urtez jarraian izoztu dituzte. Udalaren ekonomia eta finantza egoera "osasuntsuak" ahalbidetu du erabaki hori, udaletik adierazi dutenez. Asteleheneko udalbatzarrean aho batez hartu zuten erabakia.

Neurri horren barruan sartzen dira udalaren tasa zein prezio publikoak, eta, horren-

bestez, bere horretan geratuko dira ondasun higiezinaren gaineko zerga edota ibilgailuen gainekoa, besteak beste. Ametx Erakunde Autonomoak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak —euskara, kultura, gazteria eta kirol sailtakoak— ere zenbateko berean geratuko dira. Udal euskaltegiaren euskara ikasteko hobari eta laguntzei ere berdindutako diete.

Iritzia



Eskolara oinez

Trenbidearen alde bietako durangarrok pozik hartu genuen Montevideo kalea eta Landako gunea lotzea, baina urte bi pasatu dira, eta behin-behineko pasabidea zena, betiko geratu da. Oinezkook aparkaleku baten erditik, automobil artean pasatu behar dugu, sartu-irtenean dabilzala, horrek dakarren arriskuarekin. Kexa sartuta dago udalean,

baina ingurua urbanizatu arte ez dutela ezer egingo diote.

Aste honetan bertan jakin dugu Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak emango dituela umeak eskolara joateko oinez bide seguruak bultzatzeko. Hainbat umeren eskolarako bidea da aipatutako hori, eta ez da batere segurua. Badago zer egin Durangoko pasabide honetan!



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidaltako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Eneko Sagardoy (Durango, 1994) eta Felix Arkarazo (Durango, 1959) | Aktoreak**“Filmeko lantaldearen partetik, gaiarekiko errespetu handia sumatu dugu hasieratik”**

Etakide biren paperean dihardute Arkarazo eta Sagardoy aktore durangarrek ‘Sanctuaire’ film frantsesean

> ZINEMA Itsaso Esteban

Donostiako Zinemaldian eskainiko dute ‘Sanctuaire’. Pozik?

Felix Arkarazo: Bai, oso pozik. Kurioso da, izan ere, pelikula hau telebistarako ekoitzirikoa da, Canal + France taldeak ekoitzirikoa. Horrela, lehenengo, kate horretan aurkeztu zuten. Zinemaldiko zuzendaritzak telebistan estreinatu aurretik ikusi ei zuen, eta asko gustatu zitzairen. Ez da sail ofizialean lehiatuko, Zinemira sailean emango dute. Horrek, filmak zinemetan ere ibilbidea egin ahal izateko aukera zabaldu lezake.

Eneko Sagardoy: Estreinaldia Miarrizteko FIPA jaialdian izan zen. Malagan ere proiektatu zuten, eta beste zinema jaialdi batzuetarako ere hautatu dute. **F.A.:** Telebistarako ekoizpenen jaialdia da FIPA, entzute handikoa. Gidoirik onenaren eta emakumezko aktorerik onenaren sariak jaso zituen.

Lehenengo aldia da parte hartu duzuen film bat Zinemaldian erakusten dutena?

F.A.: Eneko oso oso gaztea da... (barrez). Nik aspaldi aspaldi, Jose Julian Bakedanoren *Ikuska* filmagaz eduki nuen hartu-emanik Zinemaldiagaz, baina hau da lehen aldia papel pisudun bategaz noana Donostiara.

Zelan sortu zitzaizuen proiektu honetan parte hartzeko aukera?

E.S.: Cine Vasco webgunean neukan profila ikusi, eta nigaz hartu-emanetan jarri ziren. Hiru proba egin zizkidaten. Hasiera batean, paper nahiko inportantea eman zidaten, baina gidoi aldaketa handi baten ostean, sekuentzia eta testu asko kendu zioten nire pertsonaiari.

Zeintzuk dira pelikulan jokatzeko dituzuen paperak?

E.S.: Pelloren papera egiten dut, *Pakitoren* aldeko buruzagiekin dabilen mutil gaztearena. Neure aurretik doazenei jarraitzen diet.

F.A.: Nirea, nahiz eta pantailan asko agertu ez, pelikulako trama nagusietako batean agertzen da. Ni trama horretako posibiliteten bultzatzailea naiz.

E.S.: Presentzia itzela dauka Felixen paperak. Pertsonaia oso karismatikoa da, oso ederra: nahiz eta hitz askoko pertsonaia izan ez, denek errespetatzen dute. Berba askorik barik, begiradagaz botatzen ditu geziak.

F.A.: ETaren sortzaileetako batena da nire papera. Gauzak bide ilunera doazela ikustean, Txomin nagusiarengan eragiten saiatzen da, hain bide ilunera joan ez daitezen. Historiak erakusten duenez, ez du

lortuko, baina. ETaren historia osoan gertatu izan dira horrelako egoerak, baina pelikulan kontatzen den sasoi horretan, benetako aukera bat egon omen zen gauzak, behingoz, bide arrazionalago batera bideratzeko. Baina, bata dela, bestea dela, dena hankaz gora geratu zen, eta 30 urtez luzatu da gatazka.

Espainiako eta Frantziako gobernuen gerra zikinari ere egi-ten zaio filmean erreferentzia.

F.A.: Bai, jakina agertzen dela

GAL. Eta pisu handia dauka. Filmean argi eta garbi agertzen da GALEk Frantziako gobernuaren eta poliziaren laguntasuna eduki zuela. Gaur egun ere, gai hori oso delikatua da; lantaldekoak Barne Ministeriora informazio bila joan izan direnean, esaterako, ate asko itxi dizkiete.

Zalantzarik eduki zenuten, hain hurreko gatazka kontatzeko Euskal Herriatik kanpoko ikuspegi edukiko zuten proiektu batean parte hartzeko?

E.S.: Bai, noski. Oso gai delikatua delako. Nire kasuan, gainera, gaztea izanda, gauza asko ez nekizkien, eta pixkanaka joan naiz ikasten. Hasieran, konfiantza eza eragin zidan pelikula frantsesa delako, eta frantsesei zuzendurikoa. Baina, errespetu handia sumatu nuen lantaldearen partetik, eta horrek bultzatu ninduen parte hartzera.

F.A.: Zalantza egin nuen hasieran: gure betiko gai honi buruz kanpotar batek zer ikuspegi eduki dezakeen ez nuen argi ikusten... Baina, dokumentazio lan ikaragarria egin dute, eta hori igarri egin da. Beste kontu bat izango da, ados egotea edo ez.

E.S.: Sasoi beretsuan, *Lasa eta Zabala* filmerako castinga ere egin nuen, eta bietan zalantza berdinak sortu zitzaizkidan. Inguruko jendeak ere esaten zidan: “Baina, sartuko zara?”. Gidoia irakurrita, egileen ikuspuntua ezagutzeak asko lasaitu izan nau horrelakoetan.

F.A.: Batez ere adin bat daukagunok badaukagu hurbiltasun psikologiko bat hor sartuta egon zirenekin. Sentitu dut hurbiltasun bat, antzezterakoan lagun-garria ere izan daitekeena. Enekoen kasuan ere oso argia izan da hori: zuzendariak “ekin!” esaten zuenetik, igartzen nion jabe zela egoeragaz. Isiltasunek eta keinuek pisu hori, tentsio handia, transmititzen dute.

Zer nabarmenduko zenukete filmaren ezaugarrietatik?

F.A.: Itxura aldetik, estetikoki, erritmo eta muntaketa aldetik, oso ondo eginda dago. Trama guztiak primeran josita daude. Olivier Masset-Depasse zuzendariak urte batzuk barru zeresana emango duela uste dut.



Arkarazo eta Sagardoy, filmeko aktore taldeagaz.

> PROGRAMAZIOA I. Esteban
Hiru txerri txoak ipuin klasikoaren Glu Glu taldearen bertsioa izango da, irailaren 20an, San Agustin kulturgunean ikusgai. Arantza Arrazola kulturgunearen arduradunak nabarmendu duenez, “iragan denboraldiko umeentzako antzerki obrarik arrakastatsuen” da hori. Ipuin klasikoetan oinarrituriko antzezlanek publikoak egiten dien harrera beroa ezagututa, emanaldi bi aurreikusituzte, irailaren 20rako; 12:00etan izango da bata, eta 18:00etan bestea.

Durango jaietarako San Agustingo programazioaren berri eman zuten barikuko prentsaurrekoan. Maite Guevararen klown ikuskizuna nabarmendu zuten, batetik. Urriaren 3an izango da. Aurreratu zuten, baita, Topaklown jaialdia antolatzen jarraitzeaz gainera, klown diziplina bultzatzeko helburuagaz, Durango kulturguneko horretan, denboraldi guztietan klown ikuskizun bat programatu dutela aurrerantzean.

Ron Lalá antzerki taldearen eta Espainiako Antzerki Kla-

Domekan ekingo diote San Agustinen denboraldi berriari

Umeentzako antzezlan baten emanaldi bikoitzagaz hasiko dute kurtso berria



Programazioa aurkezteko prentsaurrekoa eskaini zuten, joan zen barikuan, kulturgunean bertan.

sikoaren Konpainiaren *En un lugar del Quijote* antzezlan da San Agustingo udazkeneko alerik preziatuena. “Formatu

handiko ikuskizuna, bikaina”, Arrazolaren ustez.

Urriko eskaintza borobiltzeko, Tanttakaren *Kreditua*, Jordi

Galceranen obraren euskarazko bertsioa izango da, Durango. Joseba Apaolazak eta Zuhaitz Gurrutxagak dihardute bertan.

GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU
 Irakaslea



Ikuspuntuak

Badaki nondik datorren. Badaki non ez duen egon nahi. Zalantzak ez du tokirik. Olatu bat, bi, hiru... Ez daki nondik abiatu den. Zalantzak ez du tokirik. Beldurrak bai. Bere begi txikitako iris marroiak itsasoak irentsi ditu. Begi-nini bakartu bat baino ez da labirinto gazi baten erdian. Itsasontzia du gotorleku ordu iragankor bezain bizitza eterno batean. Ihesi doa. Odola, gorrotoa, mina, samina. Bila doa. Zeren bila? Ez du zalantzarik. Hala ere, ez daki zer aurkituko duen. Zalantza berriz ere. Beldurra? 7 urteko haur batek ez luke jakin behar zer esan nahi duten odola, gorrotoa, mina, samina hitzek. Baina berak badaki. Itsasontziaren gorabeherak ez dira zaldiko-maldiko batean sentitzen direnak. Baina berari berdin-berdin eragiten dio sabeleko sentsazio gustagarri hori. Gogor heltzen dio eskutik bere nebari. Eskua eskuaren kontra. Ba al dago negarra baino gauza ederragorik? Beldurra. Umezaroa abisatu gabe ebatsi diotenaren ikara. Eguzkiak berotu egiten du. Baina eskuetan ez du urtuko zaion marrubizko izozkirik. Lasai dago horregatik. Beldurrik ez. Kostaldera heltzen bada, orduan hasiko zaio etorkizuna. Bitartean, orainak ez du deus balio. Ez, ez da Bodrum penintsulatik irten, Turkiaren hego-mendebaldean, Kos uhartera heldu nahian. Ez, zure amona, ama edo izeba izan zitekeena Santurtzitik abiatu da, Habana itsasontzian, Southamptonera bidean.

Durango Azokako Ikasle Eguna begira

Irailaren 21etik urriaren 3ra arte da izen-ematea

> DEIALDIA

Irailaren 21etik urriaren 3ra arte eman ahalko dute izena ikastetxeetako arduradunek, 50. Durango Azokako Ikasle Egunean parte hartzeko. Azokaren webgunearen bitartez egin ahalko dute ikastetxeek izen-ematea. Abenduaren 4an ekingo dute Ikasle Eguna, Azokan, eta Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduriko hainbat ekitaldi burutuko dituzte.

Kontzertuak, solasaldiak, eta tailerrak antolatu dituzte, besteak beste, Ikasle Egunerako. Argitaletxe eta ekoiztetxeen Azokako erakusmahaietako ohiko eskaintzaz gainera, ikasleei zuzenduriko 25 saio baino

gehiago hartuko ditu Durango Azokak, abenduaren 4an.

Zirko tailerra, eta bideoklipak ekoizten ikasteko tailerra dira aurtengo Ikasle Eguneko nobedadeetako batzuk. Bestalde, ikus-entzunezko lanen zein ipuin eta kanten bitartez zabalitzen diren balioen azterketarako gonbidapena ere ekingo diete Durangora datozen ikasleei.

Aurten, gainera, lehenengoz parte hartuko du Durango Udal Liburutegiak Ikasle Egunean. *Stop-Motion* tailerra egingo dute, Azokaren lehenengo egunean, liburutegian.

Iaz, Euskal Herriko hainbat ikastetxetatik etorritako 1.200 ikasle baino gehiago elkartu ziren Ikasle Egunean.

‘Emotions’ ikuskizuna, Khuzaymaren eskutik

Irailaren 25ean, San Agustinen ariko dira dantzan

> DANTZA

Emotions izenburuko sabel dantza ikuskizuna eskainiko du Durango Khuzayma taldeak, San Agustinen. Irailaren 25ean, 20:30ean, da hitzordua, Durango kulturgunean.

Sabel dantza taldea da Khuzayma, baina, datorren barikuko emanaldian, dantza mota hori ezezik, dantza tribalak ere

eskainiko dituzte. Taldekideen berbetan, “emozioz beteriko ikuskizuna” da Durango San Agustinen eskainiko dutena.

Durango dantza taldeko kideekin batera, Euskal Herriko beste hainbat lekutako, zein Malaga, Madril eta Kantabriako dantzariak ere parte hartuko dute San Agustin kulturguneko emanaldi horretan.



PLATERUENA Durango Kafe Antzokia www.plateruena.net
 Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA	IRAILAK 23 19:00etan HAUR LITERATURA ARETOA WEB BERRIAREN AURKEZPENA	IRAILAK 24 19:00etan KANTULAGUN AURKEZPENA	URRIAK 3 22:30etan MIKI NADAL BAKARRIZKETA
-------------------	---	--	---

Hiru txerri txoak eta otsoa
 Glu Glu produkzioak

Irailaren 20an
 12:00etan / 18:00etan

Sanagustinalde, 12
 Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEA

zanboto

JAIIAK!

IURRETA

2015eko IRAILA



*Iurretako Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!*



IURRETA
ELEIZATEKO
UDALA

IURRETAKO JAIEN EGITARAUA

IRAILAK 18, barikua

18:00 Pirritx eta Porrotx "Txo mikmak txikia".

IRAILAK 19, zapatua

9:00 Mendi Martxa (Zaldai) Informazio gehiago: Tel.: 626 740 969, www.zaldaimenditaldea.org

Argazki Rallya on line. GAI: Iurretako Jaiak Lanak aurkezteko epea: irailaren 30era arte. Lanak aurkezteko helbidea: "kultur-etxea@iurreta.net" Parte-hartzaile bakoitzak 2 argazki aurkeztu ditzake. Saria: 50€urokoa izango da. Sari banaketa: urriaren 4an, 13:00etan, Nekazaritza eta Artisautza azokan. Aurkeztutako lanak urriaren 6tik aurrera ikusgai egongo dira Ibarretxe kultur etxean.

IRAILAK 25, barikua

19:00 Antzerkia Ibarretxen (Anderebide). "El mesón de los suspiros" (Gora eta gora).

22:30 Folk kontzertua Olaburu frontoian. Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta.

IRAILAK 26, zapatua

11:00 Graffiti erakusketa eta tailerra Amilburu Plazan.

11:30 Beldur Barik 2015 informazio gunea Askondon.

12:00 Iurretako Mikel Deuna Herri lasterketa Askondon.

16:30 Umeentzako herri kirolak Amilburun.

18:00 Maiztegiko umeak dantzan Amilburun.

20:00 Erromeria umeentzat Askondon, "Disko Txiki".

22:00 Helduentzako erromeria Askondon, "Disko Erromeria".

22:30 Rock kontzertua.

IRAILAK 27, domeka

12:00-14:00 Umeen parkea, puzgarriak eta tailerrak. (Euria egin ezker, Maiztegi frontoian).

14:30 Gastronomía txapelketa (arroz).

16:00-19:00 Umeen parkea, puzgarriak eta tailerrak. (Euria eginez gero, Maiztegiko frontoian).

19:00 Jotak Askondon "Corrientes Navarras".

IRAILAK 28, astelehena SAN MIGEL BEZPERA

12:00 Montoitik txapligoak; ondoren, kalejira dultzaineroek alaiturik.

12:15 Umeendako ikuskizuna Askondo kalean "Sambhu Teatro kataklown".

14:00 Herriko Nagusien bazkaria, jarraian erromeria Uribesalgo soinu-joleagaz Askondon. Ondoren, dantza lehiaketa (pasodoblea, tangoa...) eta patata dantza. Sari banaketa.

14:30 Gazte bazkaria plazan.

18:00 Ohiturazko Doniel-Hatxa jasotzea. Dantzarien azken entsegua.

22:00 Erromeria Zesuma taldearekin.

IRAILAK 29, martitena SAN MIGEL EGUNA

10:00 Dantzari eta Agintarien kalejira Montoitik Plazara.

11:00 Meza nagusia. Ondoren, dantzari-dantza eta gorulari dantza.

12:30 Igel txapelketa.

17:00 Herri kirol parte-hartzaileak.

19:00 Dantzari-dantza eta neskek egindako soka dantza.

IRAILAK 30, eguaztena

Meza

19:30 Nesken Gomazko Paleta Zirkuitua "MPB" 2015.

URRIAK 1, eguena PERTSONA NAGUSIEN NAZIOARTEKO EGUNA

9:00 Iurretako azoka.

9:00 XL informazio gunea.

10:30 Pintura lehiaketa Amilburun.

11:30 Ogiaren eta Eusko Labeleko produktuen dastaketa.

18:30 Bingo-Tonbola Askondon.

19:00 Pintxo-poteoa "El Despiste" txarangak alaiturik.

20:00 Luntxa eta txokolata musikagaz alaiturik.

URRIAK 2, barikua

16:30-18:30 Umeentzako tailerrak (Askondon, ...).

1. Tailerra: aurpegi margo tailerra, eta mural erraldoia.
2. Tailerra: eskumuturrekoak eta abalorioak.
3. Tailerra: zumba tailerra umeentzat.
4. Pelikulak asmatzera.

18:30-20:30 Helduentzako tailerrak "kultur-aniztasuna" (Askondon,).

1. Tailerra: Stretching (55min).
2. Tailerra: Bollywood (ordu bat).

22:00 "Danza Oriental, tribal y Bollywood" ikuskizuna.

19:00 Poteoa elektrotxarangak alaiturik.

22:00 Profesionalen partidua. "Iurreta-25. Urte Trofeoa" Berasaluze / Aretxabaleta Urrutikoetxea / Zabala Sarrerak Olaburu frontoian: jesarlekua: 15 euro, korridorean 10€

22:30 Rock kontzertua. Durangaldeko taldeak.

URRIAK 3, zapatua MOZORRO EGUNA

12:00 Poteoa.

12:30 "XVI. Bizikleta Festa". Irteera San Migel plazan eta helmuga Olaburu frontoian.

14:30 Bazkari herrikoia plazan (euria eginez gero Olaburu frontoian).

17:30 Zezen mekanikoa.

19:30 Plazatik hasita Montoira kalejira, eta buelta. Musikagaz alaiturik.

22:00 Bertsolariak: Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Igor Elorza.

24:00 Erromeria Luhartz taldeagaz.

URRIAK 4, domeka ERROSARIO EGUNA

10:00-14:00 XVII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, eta umeentzako tailerrak Andaparapen.

10:30 Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik Plazara.

11:00 Meza nagusia.

Ondoren, Dantzari-dantza eta gorulari dantza.

12:30 Gastronomía txapelketa.

12:30 Herri kirolak plazan (Heki Herri kirol kluba).

14:30 Aurkezpena. Sariak:
- Otzara
- Bi botila ardo
- Ardo botila bat.

18:30 Dantza saioa. Talde gonbidatua: Iurretako dantzariak: Gorulari dantza. Dantzari-dantza. Ondoren, jaietako errifen zozketa.

20:30 Herri afaria Arantzak eta Pantxok alaiturik.

22:00 Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz. Erromeriak gauerdia arte jarraituko du.

**Parques
y Jardines**



• LOREZAINZA • KIROL ZELAIK • HIDROEREITEA • GOLF ZELAIK •

Gaztañatza auzunea - 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 94 681 37 93 / 94 681 26 33 / 94 621 55 80
Faxa: 94 681 90 82
parques@parquesjardines.euskalnet.net

EBANISTERIA - AROZTEGIA

ELAI

Arriaundi industrialdea, z/g
Tel.: 946 200 769
Móvil: 629 322 713
IURRETA - BIZKAIA



Mugarra ingurua ezagutzeko mendi martxa antolatuko du Zaldaik, bihar

25 km-ko ibilbide bakarra diseinatu dute edizio honetarako Zaldai mendizale taldeko antolatzaileek

► MENDIA J.D./J.G.

Zaldai mendizale taldeak ibilbide berria estreinatuko du bihar-ko mendi martxan. Lehenengo urtean, Aramotzetik ziharduen ibilbidea egin zuten, asteburuan egingo dutenaren antzekoa. Hurrengo urteetan, berriz, Atxarteruntz jo zuten, Anbotoren eta Urkiolako Parke Naturalaren ingurura. Iazko mendi martxak 29 km izan zituen. Aurreko edizioetan, berriz, ibilbide bi egin zituzten, 50 eta 21 km-koak. Erdibideko ibilbide bat diseinatu dute mendi martxaren seiga-

rren aldi honetarako. Guztira, 25 kilometroko ibilbidea izango da. Denak taldean joateko, eta denentzat egokia izan daitekeen ibilbidea prestatzea izan dela asmoa azaldu du Erlantz Zaldunbide Zaldaiko kideak. Ibilbide hau jende askorentzat sorpresa izan daitekeela uste dute antolatzaileek. Neberondo ondotik eta Aramotzetik Mugarra inguratuko dute, eta zati batzuk teknikoagoak direnez, mendizale askok agian ez dituztela ezagutuko uste dute Zaldaikoek. Hornidura puntuei dagokienez,

Irunganan jarriko dute lehenengo, eta Marmol inguruan bigarrena. Era berean, bukaeran luntxa jarriko dute parte-hartzaile denentzat. Antolatzaileek aurreratu dutenez, frontoiko dutxak erabilgarri izango dira. Parte-hartzaileek eta antolakuntzan jardungo dutenek opariak jasoko dituzte: oinetakoak gordetzeko poltsa bat eta ekoizpen naturaleko garagardoa, esaterako. Gainera, garagardo botila berezia izango da. Zaldaien logoa eta Mugarrenen marrazkia izango du botilak.

300dik gora parte-hartzaile Iaz, 300 parte-hartzailetik gora batu ziren Zaldaien mendi martxan. Aurten ere, parte-hartzaile eustea itxaroten dute. Izan ere, Durangaldetik kanpoko mendizaleek ere gogoko izaten dute Iurretako mendi martxara etortzea. Euskal Herri osoko hainbat mendizalek agendan apuntatuta izaten dute Iurretako jaiekin bat eginez irailaren hirugarren asteburuko hitzordua. Mendizaleez gainera, Zaldaik 25 boluntario izango ditu lanean mendi martxa antolatzeko.

Iurretako frontoiko atean goizeko 08:00etan zabalduko dituzte. Izen emateko eta gosaltzeko aukera izango da

Izen-ematea frontoian Iurretako frontoiko atean goizeko 08:00etan zabalduko dituzte, bihar. Izena emateko aukeraz gainera, parte-hartzaileei gosaria eskainiko diete. Mendi martxa abiatzeko ordua 09:00etan izango da.

IK Iurreta kopistegia
INPRENTA DIGITALA

Bidebarrieta, 1 behe (Korrees ondoan)
48215 IURRETA
Tel. 94 681 10 70
planos@iurretakopi.com
mac@iurretakopi.com

"la Caixa"

Ondo pasa sanmigeletan!

Bixente Kapanaga, 5 · 48215 IURRETA
Tel.: 946 220 010 · Faxa.: 946 215 848

SERAPIO CALVO
eskaiolazko dekorazioak

- SABAI ERREGISTRAGARRIAK
- PLADUR SABAIK
- APALAK

Tallerra
Bidebarrieta, 7 behe · IURRETA · Tel.: 946 811 512
Faxa: 944 668 100 · e-maila: serapicalvo@euskalnet.net



Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUA
ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industriagunea, 6 - 48215 Iurreta - Tel.: 94 681 88 62 - mallabiena@mallabiena.com



Ebentxe Madina elorriarrak egindako 'San Migel zain' izenburuko kartelak iragartzen ditu aurtengo jaiak.

Iaz baino 30 ekitaldi gehiago antolatu dituzte, San Migeletarako

Martitzenean, Jai Batzordearen, elkarten eta udalaren ordezkariak aurkeztu zuten jai egitaraua

> JAIK Itsaso Esteban Azken urteetako aurrekontu beragaz, denera, 34.000 euro ingurugaz, "aurten inoizko ekitaldi kopuru handiena; iaz baino 30 ekitaldi gehiago" antolatu dituztela azpimarratu du Liher Aiarzagüena Jai Batzordeko kideak, Iurretako plazan egin duten aurkezpenean. Jai Batzordean ekitaldiak antolatzen boluntario lana egiten duten herritar guztiak eskertu ditu Aiarzagüenak: "Horien denen lanak egiten du posible, urtez urte, jaietarako ekitaldi gehiago antolatzea". Gaurkoak, irailaren 18koak, izango dira Iurretako San Migeletako jai egitarauko lehenengo hitzorduak. Pirritxek,

Porrotxek eta Marimototsek *Txo Mikmak txikia* ikuskizuna eskainiko dute, 18:00etan, Olaburu frontoian. Jarraian, Rio de Oro elkarteari laguntzeko dirua biltzeko, 20:00etan, Shabam dantza egingo dute. Hurrengo egunean, irailaren 19an, Iurretako VI. Mendi martxa egingo dute, Aramotz mendilerroan zehar.

Karpa Askondon Jaietako hainbat ekitaldi herri-gunean burutu, eta inguru horretako jai giroa bultzatzeko asmoz, hainbat ekitaldi Askondon ipiniko duten karpan egingo dituzte, aurten, lehenengoz. Mozorro Eguneko bazkaria, Gazte Asanbladak antolaturiko torti-

lla txapelketa, zein umeentzako tailerrak, esaterako, Askondoko karpan egingo dituzte.

Jaietako hainbat ekitaldi Askondon ipiniko duten karpan egingo dituzte; Mozorro Eguneko bazkaria, esaterako

Prentsaurrekoan aurreratu dutenez, barikuan barik, zapatuan egingo dute, aurten, Mozorro Eguna: urriaren 3an, hain zuzen. Bezperarako, urriaren 2rako, bestalde, Durangaldeko rock taldeen kontzertua anto-

latu dute. Eskualdeko lau talde ariko dira: Kohatu, Saliva, Baghdad eta Ganorabakuek taldeek joko dute egun horretan.

Musika eskaintzari dagokionez, beste bi kontzertu ere azpimarratu dituzte Jai Batzordeko kideek, prentsaurrekoan; irailaren 25ean Mikel Markezek eta Eñaut Elorrietak eskainiko dutena, batetik; eta, Arkada Social, Sermond's, eta Niña Coyote eta Chico Tornadok irailaren 26an eskainiko dutena, bestetik.

Urtero iurretarako asko biltzen dituzten "jaietako egitarauko ekitaldi printzipalak, klasikoak", ez dira faltako, San Migeletan. Plaza bete-betea egoten da, esaterako, Donien Atxa ipin-

tzeko unean. Aurten, asteleheneguz ipiniko dute: irailaren 28an, 18:00etan. Urriaren 3ko bertso saioa eta Luhartzen osteko emanaldia dira San Migeletako klasiko horietako beste bi.

'San Migel zain' Ebentxe Madina Elorrioko diseinatzaile grafikoa da 2015. urteko Iurretako San Migel jaiak iragartzen dituen kartelaren egilea. *San Migel zain* izenburua du kartelak, eta dantzarien jantziak dira irudian agertzen direnak: urtez urte, jaiak noiz ailegatuko, irrikaz, zain egoten diren iurretarek jantzen dituzten dantzari jantziak.

Arkada Social, Niña Coyote eta Chico Tornado, eta Sermond's taldeek joko dute irailaren 26an



Irailaren 26an –gaztelaniaz– eta 27an –euskaraz– izango dira bisita gidatuak. Lehiar Elorriaga

Kanpandorretik berritzen hasi zen elizaren istorioak entzungai

Iurretako egungo elizaren 200. urteurrena dela eta, bisita gidatuak egingo dituzte

> JAIK Amaia Ugalde

Azken mendeetan, garai ba-koitzari zegokion eliza egon da Iurretako eliza dagoen tokian. Ia mila urte izango dira bertan eliza bat dagoenetik, baina, eza-gutzen duguna, duela 200 urte amaitu zuten eraikitzen. Jon Irazabal historialari eta Gere-diaga elkarteko kideak elizaren inguruko historia azaltzen duen argitalpena osatu du.

Liburuaren aurkezpena jaie-tan egingo du Irazabalek. Iraila-ren 22an, elizako kaperan izango da hitzordua, 19:00etan, eta aur-kezpenaren ostean, berriketal-dirako aukera egongo da. Aur-kezpen horrez gain, irailaren 26an eta 27an, bisita gidatuak egingo dituzte, Jon Arroitarren eskutik. Euskarazkoa 27an izan-go da, 11:00etan, eta gaztelaniaz, 26an 18:00etan egingo dute.

Kanpandorra, 'udaletxe'

Jon Irazabalen berbetan, "eli-za eta bere ingurua toki bizia izan dira mendeetan". Iurretan elizako ataria bizitza sozial eta politikoaren gune nagusia izan zen. "Horiexek dira Bizkaiko gu-re lehen parlamentuak". Elizako atean biltzen ziren udal ordezkariak –hortik elizate izena–, eta, Iurretan, baita kanpandorreen ere. Kanpandorreko lehen solai-

ruan zegoen gela batean batzar-tzen ziren Iurretako alkate eta zinegotziak. Irazabalek azaldu duenez, "ia beti hondatuta ego-ten zen eraikuntza kaskarra". Horrela bada, kanpandorra ber-ritzeko erabakia hartu zuten, 1705ean.

Obrak egiteko erabakia har-tu, bai, hartu zuten, baina la-nak 1752an hasi zituzten. Bitar-te horretan, udal arduradunek ezin izan zuten kanpandorreen batzarrak egiten jarraitu, eta 1748an, udaletxe bat eraiki zuten eliza aurreko plazan. Ge-roago, eraikin hori eskola izan zen, eta, gaur egun, horrela ezagutzen dute iurretarrak: es-kola zaharra.

Dorre berria, eliza zaharra
Gaur egungo kanpandorra 1782an amaitu zuten, eta, garai hartan, Iurretako herri txikian, dorre "ausarta" izan zela dio Jon Irazabalek; "baina eraikun-

Jon Irazabalek 200 urte bete dituen elizari buruzko istorioak batu ditu; maritzenean aurkeztuko du liburua

tza eder haren ondoan, jausi beharrean zegoen eliza". Hu-rrengo urteetan, panorama horretan iraun zuen Iurretako elizak; kanpandorra berria, dotore-dotorea, eta, ondoan, eraikin zahar txikia. Horrelako batean, 1793an, gotzainak Iu-rreta bisitatu, eta eliza horrela ikusirik, egoera onartezina zela esan zuen. Eliza haren egoera, baina, ezin zen konponketa arin batzuekin hobetu, eta berri bat eraiki behar zela erabaki zuten, 1799an.

Zaharraren gainetik eraikia

Eliza berria zaharra baino han-diagoa izango zenez, zaharra bota barik hasi ziren eraikuntza lanak. Sasoi hartako arkitekto handienetako batek izan zuen obraren ardura: Alejo de Miran-dak. Eraikuntza nagusia 1809an amaitu zuten, baina apaindurak falta ziren. Azkenean, 1815erako egin zituzten lan guztiak. Urte hartan, San Migel egunean be-deinkatu zuten Iurretako San Migel Goianguruaren eliza.

URALDE
KLINIKA DENTAL
Begoña Zubimendi Goxencia

Uralde 1, Bajo
Esquina Bixente Kapanaga
48215, Iurreta, Bizkaia

667 097 575 · 946 550 055
info@klinikauralde.com
www.klinikauralde.com

LAGOI S.L.
ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

Biltegia:
Arriandi auzoa z/g · Iurreta
Tel.: 94 620 33 22
Faxa: 94 621 58 74

Erakusketa:
Montebideo etor. · Durango
Tel.: 94 621 52 84
Faxa: 94 621 52 85
www.lagoi98.com

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Ondo pasa Sanmigel jaietan!

Bixente Kapanaga, 19 · Iurreta · Bizkaia · Tel.: 946 916 673
Zarate eta Elexpe Eragileak SL · www.zarateyelexpe.com

DESQUACES PILASTRA
AUTOAK DESEGITEKO LANTOKI BAIMENDUA

- Erabiltzen ez diren ibilgailuak deskontaminatzeko zentro baimendua EU2 / 097 / 04 gestorea.
- Ordezko pieza erabilien salmenta.

IBILGAILUEN BEHIN BETIKO BAJA EMATEA
eta Faxa: 946 218 079
OSAGARRIEN SALMENTA
: 946 201 787

GRUA ZERBITZUA

Fauste Auzoa, 18
(Zugastietara bidean)
48215 IURRETA

Gauargi Taberna
Te bereziak
Gozari berezia

Dantzari, 5 - Iurreta

Buruz buruko txapelduna binakako txapeldunordearen aurka pilotan

Profesionalen aurtengo binakako pilota partiduan Mikel Urrutikoetxea eta Pablo Berasaluze aurrez aurre izango dira aurreko koadroetan

> **JAIK!** Joseba Derteano Mikel Urrutikoetxeak sarritan aipatu du Pablo Berasaluzeren-gandik asko ikasi duela. Aurtengo jaietako profesionalen partidua irakaslea eta ikaslea aurrez aurre jarriko ditu aurreko koadroetan. Urriaren 2an izango da, 22:00etan.

Gaur egun Bizkaian mailarik onenean dabilzan pilotariak dira, gainera. Mikel Urrutikoetxea zaratamoarra buruz buruko txapelduna da. Pablo Berasaluze berriztarra, aldiz, hiru bider izan da binakako azpitxapeldun, azkenekoz aurtentzen.

Bikoteak Andoni Aretxabaleta eta Ibai Zabala osatuko dituzte. Seguruena, Berasaluzek

Aretxabaletagaz jokatu du, eta Urrutikoetxeak Zabala-gaz. Aurretik, Olaburu pilota

Atzeko koadroetan Ibai Zabala eta Andoni Aretxabaleta ariko dira; lau pilotari bizkaitar batuko ditu jaialdiak

elkarteko gazteen partidu bi egongo dira. Aurtentzen, nagusiekin beharrez, partidua haur-kategoriako eta kadete mailako gazteekin antolatzea erabaki dute, zaleen aurrean frontoi betean

jokatzeko aukera izan dezaten. Partiduei 'Iurreta, 25 urte' izena jarri diete, Iurretako desanexioaren 25. urteurrena gogoratzeko. Partidua eserita ikusteko sarrerek 15 euro balioko dute, eta zutikakoei 10 euro. Irailaren 24tik aurrera eskuratu daitezke, pilotalekuan: goizetan, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldetan, 17:00etatik 19:00etara.

Nesken paleta partidua

Irailaren 30ean, 19:00etan, nesken gomazko paleta zirkuituko partidua jokatu dute. Goi-ketxeak hernaniarrak eta Sáez gasteiztarak Arrizabalaga gerrikarraren eta Etxaniz etxebarriraren aurka jokatu dute.



Mikel Urrutikoetxea buruz buruko txapelagaz eta garaikurragaz. Asegarce



Bakoitzak bere erreperorioa eskainiko du, eta, gero, batera arituko dira. M. Markez

Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta elkarregaz arituko dira oholtzan

Folk kontzertua eskainiko dute Olaburu frontoian, irailaren 25ean, 22:30ean

> **JAIK!** Aitziber Basauri Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta, biak elkarrekin entzuteko aukera eskainiko dute sanmigelek. Mikel Markezek *Indar bat dabil hor* azken diskoa aurkeztuko du; urteetako ibilbidean esanguratsuak izan diren abestiak ahaztu gabe. Eñaut Elorrietak, berriz, bakarkako lehenengo lana izan duen *Deserriko kantak* diskoan jasotakoak abestuko ditu.

Bakoitzak beretik hainbat kantu eskainiko ditu, eta, bukatzeko, elkarrekin arituko dira. Sorpresaren bat ere gorde

dute, Mikel Markezek azaldutakoaren arabera. "Ez da berria kantaldiak elkarregaz ematea. Gure herrian oso sustraituta egon dira holakoak. Hor dago Ez Dok Amairu. Gainera, publikoarentzat oso aberasgarria eta interesgarria da elkarri eragite hori". Irailaren 25ean izango da kontzertua, frontoian, 22:30ean.

"Lanik baikorrena"

Indar bat dabil hor diskoagaz "ahalik eta lanik baikorrena" egiten saiatu da Mikel Markez, "jakinik ez direla garairik one-

nak, maila askotan". Dioenez, "halako egoerei aurre egiteko, bide bi ditugu: negarrez, edo aurrera eginez, hortzak estututa. Diskoari izena ematen dion bertsoak, Xabier Amurizarenak, oso ondo definitzen du diskoaren muina: garai onak bizi ez arren, bada hor indar bat, zutik, bizirik eusten laguntzen diguna. Herri bat bizirik mantentzea lortzen duen indar bat".

Uxue Alberdiren bertso-sorta ere nabarmendu du. "Konplize ditut" abestiak emakumeen arteko konplizitatea du hizpide.

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

IZARBET

TIEN 21

Lanparak, oparitzeko gauzak, sukaldeko eta komuneko altxariak

Bixente Kapanaga, 3 - 48215 Iurreta Tel.: 946 812 280 Faxa: 946 216 336 izarbek@izarbek.com

lurretako BATZOKIA

ondo pasatu jaitzian!

Eguneko menua Enkargalutako afariak Asteburuetakoko afariak

C/Bixente Kapanaga, 21 - Tel: 94 620 27 64

BATZOKIA

Garage SAN MIGUEL

Garage San Miguel De Iurreta S.L.
Dantzari auzunea, 8 Behea - 48215 Iurreta
Tel.: 946 811 479 - Faxa: 944 668 282
Posta elektronikoa: garagesanmiguel@gmail.com

AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEAK
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!!!

aitte san migel jai batzordeak

Asier Otadui eta Antxoka Abasolo | Donien Atxa igotzen parte hartzen dute**“Gora sanmigelak! esaten den une horrek ez dauka preziorik”**

21. aldiz, Otadui eta Abasolo Donien Atxa jasotzeko eskaileran egongo dira

> BEZPERA Markel Onaindia Antzerki hutsa da, ala benetan da gaitza Donien Atxa altxatzea? Galdera horri erantzuteko, 21 urtez enborrari eusten dabilzan lagun bi batu dira solasaldira. Jaietako unerik onena dela diote Antxoka Abasolok (Iurreta, 1974) eta Asier Otadui (Iurreta, 1973).

Zein izaten da zuen lana Donien Atxa igotzean?

Asier Otadui: Lehenengo, frontoira joaten gara, eta handik, Donien Atxa ekartzen dugu. Eskailera eta hesiak plaza atera, eta enborrari adarrak eta azak lotzen dizkioten bitartean, tragotxo bana hartzen dugu [barrez].

Antxoka Abasolo: Gero, igotze hastean, plazara irten, eta atzeko partean kokatzen gara, eskailerrari eusten, Donien Atxa jauzi ez dadin.

Batzuek eskuekin eusten diote enborrari, beste batzuek sokekin, eta zuek eskaileragaz. Zergatik?

A.O.: Eskailera, igotzeko baino, eusteko eta segurtasunerako da. Enborrak altuera hartzen duenean, eskailera segurtasuna ematen dio.

A.A.: Bai. Indar apur bat egin behar da, baina bultzakadarik ez. Eustea da kontua.

Zenbat urte daramatzazue eskaileran?

A.O.: Aurten 21 urte dira dagoneko. Urte bitan, aurrean egon nintzen, dantzariekin, eta beste pare bat urtean soketan.

A.A.: Ni ere berdin. Gure aurretik nire aita egon zen eskaileran, eta beragaz hasi ginen. Talde bereko dantzariak ginen Asier eta biok.

Hainbeste urteko esperientziagaz, erraz-erraz altxatuko duzue, ezta?

A.O.: Nik uste dut urtero desberdina dela. Azkeneko momentuetan, urduritasuna agertzen da beti. Gainera, betiko jendetik aparte, gonbidatuak ere izaten ditugu. Bartzelonatik etorritako lagun batzuk egon ziren behin, adibidez. Zuloan sartu dela ikustean, txaloak jo, taketak sartu, eta lasaitu egiten gara. Ez nuke esango erraza denik.

A.A.: Orain urte batzuk asko kostatu zitzaigula akordatzeko naiz. Ez dakit zergatik. Gutxiago izango ginen, beharbada. Ez zen artez ipintzen. Bestalde, enborra berria bada, gehiago pisatzen du, eta igarri egiten da. Asteburuan edo astegun batean izan, hor ere badago aldea, soketarako jende kopurua aldatu egiten da eta.

Baina jende askok esaten du erraz altxatzen duzuela, eta batzuetan antzerkia egiten duzuela...

A.O.: Hori urtero komentatzen du jendeak! Eta, brometan, ja-

rraipena ematen diogu txis-teari: hurrengo urtean eskuz altxatuko dugula eta abar [barrez]. Baina enborra batera edo bestera mugitzen hasten bada, edozer gerta daiteke. Gogoratu zer pasatu zen Traña-Matienan [Donien Atxa jauzi egin zen orain urte gutxi].

Behetik inpresioa egiten du?

A.O.: Bai. Egiten du, jakina. Pentsa, plazako iturrian egoten gara lehenengo tiraldian.

A.A.: Bada, niri ez dit batere inpresiorik egiten. Ez dakit, akaso ohituta nagoelako edo. Plazako lekuri seguruena dela sentitzen dut han nagoenean; beti pentsatu izan dut, jausten bada, alde batera edo bestera jausiko dela, baina gure gainera ez.

Eta sentitzen al duzue emoziorik?

A.A.: Bai. Goizetik hasita.

A.O.: *Gora sanmigelak!* esaten den momentu horrek ez dauka preziorik! Jaien hasiera da, eta urtebete itxaroten gauden gauza bat da.

Egun hori San Migel bezpera izaten da, eta eguerditik egoten da parranda. Alkoholemia kontrolik beharrezkoa al da Donien Atxa altxatzeko?

A.A.: Ez litzateke egin behar, debekatu egingo lukete eta [barrez].

A.O.: Batek baino gehiagok emango luke positibo, bai. Bai-



na, egia esan, gero eta kontzienteko gara egoeraz. Lehenengo urteetan, plazara eskasago joaten ginela esango nuke. Orduan, *Apillo*-eta [Antxokaren aita] zeuden, eta gurea, gehiago zen plantak egitea [barrez].

Jaietako momenturik oneneko bat al da zuentzat?

A.O.: Niretzako bai. Dudarik barik.

A.A.: Onena. Kontuan hartu behar da herriko jaietan egune-

ro daudela gauza onak, Mozorro Eguna adibidez, baina onena da, bai. Donien Atxa altxatzeko eguna jaien hasiera da, eta zuzenean parte hartzen dugu.

A.A.: Nire gusturako, bezperakoa eta Mozorro Eguna izaten dira onenak. Beste egunetan, San Migel eta Errosario egunetan, makalik ibiltzen gara; gorputza indarberitzeko behar izaten ditugu egun horiek. Suposatzen dut egunen batean gehiago aprobetxatuko ditugula!

UNDARRI BIKE

Bidebarrieta, 5 behea
48215 IURRETA
Tel.: 946 817 808
www.undarrbike.com

Bizikleten salmenta eta konponketa
Ski / Snow zola • Ertzen konponketa

ASIMAIR COMPRESORES

SALMENTA ETA ASISTENTZIA
TEKNIKO ZERBITZUA

Ertzila industrialdea, pab. 7,8 y 16. 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 202 415 - asimair@asimair.com

Repara Tu Vehículo

Bestelako mekanika posible da

Ondo pasatu San Migel jaietan!

www.reparatuvehiculo.es

PROMOZIOAK

OLIOA+OLIO FILTROA EROSITA
15 MINUTU DOAN BOXEAN

AURREKO+ATZEKO FRENOAK EROSITA
FRENO GARBITZAILEA DOAN

OLIOA+OLIO ETA ERREGAI
FILTROA EROSITA
30 MINUTU DOAN BOXEAN

N-634 errep. Durango - Bilbao 82 km.
UEI-3 ind. 5 behea - 48215 Iurreta Tel/Fax: 946 817 914

FORD EGUN URDINAK

%30 arteko deskontuak!

Irailaren 30era arte bakarrik!

FORD FOCUS

- EcoBoost motorra
- Lagunduriko aparkatze-sistema

13.390€

Azken 4 unitateak

Ford KONDIA

FORD KONDIA
Otaloa Etorbidea, 22
EIBAR
T. 943 202 091

ZIORLA AUTOAK
Santamaña auzoa, 19
IURRETA
T. 946 815 569

Eskaintzak irailaren 30era arte baliatu daitezke, edo stock-a amaitu arte. Promozio-hau ez da baliagarria izango beste eskaintza edo deskontu batzuekin batera. Zergak eta PVEB plana, baina. Matrikulazio gastuak ez daude prebisan baina. Prezioak modelo zehatz batzuetarako dira. Kontuztatu baldintzak.



RENAULT
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziario-baldintza ezin hobeak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



**RENAULT
OCASIÓN**

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKE AUTO BATENGATIK

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

Maialen Bildosola (Durango, 1987) eta Iker Solana (Abadiño, 1993) | Aisialdiko hezitzaileak

“Gabezia batetik eta egiteko gogo horretatik sortu da Gazte Taldea”

Irailaren 25erako ‘Lupa hartu eta itzartu’ ekimen berezia antolatu du Gazte Taldeak, Pinondon, 16:45ean



> BERBAZ Aitziber Basauri Aisialdiko hainbat hezitzailek sustatuta, Gazte Taldea sortu dute Durangon. Urteetako gogo gauzatu dute, Berbaro elkarrengaz batera. 10-14 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako eskaintza landu gura dute. Hala ere, aurrera begira, beste adin tarte batzuei ere heldu gura diete. Uda aurretik hasi ziren lanean, eta, orain, gaztetxoei zuzendutako parte-hartze prozesua abiatu dute.

Nola sortu da Gazte Taldea?

Iker Solana: Dagoen gabezia baten aurrean sortu da. Aisialdian ari garen hainbat hezitzaile elkartu gara, eta, sumatutako gabezia batetik eta egiteko gogo horretatik sortu da. Urteetan ari gara hori sortzeko gogoagaz, eta ez gara inoiz martxan jarri. Oraingoan, abiatu gara. **Maialen Bildosola:** Gainera, hezitzaile lez, mugatuta sentitu gara; udalekuetara mugatuta. Gogoagaz egon gara urtean zehar ere zerbait egiteko.

Uda aurretik hasi zineten.

I.S.: Otsail eta martxo bitar-

“**Aurrera begira, Gaztelekuaren proiektua sustatu gura dugu**”

tean hasi ginen. Apurka-apurka gauzak adosten joan gara; zein filosofia eta helburugaz heldu gura dugun gazteongana. Tartean, udalekuak ere izan ditugu. Gaztetxoei eurei galdetzeko aukera ere izan dugu.

Nolako izan da erantzuna?

M.B.: Nagusienekin aritu ginen gu (Udaleku Ibiltarian). Hala ere, ondo hartu zuten proposamena. Aspertu egiten direla zioten, beti berdina egiten dutela. Egia da, hasiera batean pentsatutako adin tarte horretatik irteten direla (15-16 urte). Hala ere, aurrera begira, eurei zuzendutako dinamika ere sortu gura dugu.

10-14 urte arteko gaztetxoein jardungo duzue.

I.S.: Hasiera batean, bai. Gazteei

galdetuta, premia gehien adin tarte horretan izan zezaketela pentsatu genuen. Gainera, lanean hasteko, horixe da guretzat adin tarterik errazena. Aurrerago, beste adin tarte batzuetara zabaldu daitekeen egitasmoa da hau.

Parte-hartze prozesu bat zabaldu berri duzue.

M.B.: Bai. Begiraleak batu gara orain arte, eta gazteekin elkartzeko beharra ikusi dugu. Horretarako, ekintza berezia egingo dugu irailaren 25ean, Pinondon. Dinamika-jolas modukoa izango da: gazteek zer gura duten, zer behar duten, zeren falta igarten duten... ikusteko. Hortik aurrera, ikusiko dugu nola antolatu dena.

Lehenengo pausoa izango da...

I.S.: ‘Lupa hartu eta itzartu’ deitu diogu. Lupa hartuta, dituzten gabeziak, Durango nolako den, gazteentzako gaur egungo aisialdi eskaintza zein den... ikusi gura dugu; non ematen dituzten orduak... Duten aisialdi motaz hausnartu gura dugu: kontsumista den, mugiko-

Horiek dira helburuak?

I.S.: Euskarazko aisialdia sustatu, eta gazteek dituzten gabeziei erantzun gura diegu. Elkar ezagutzea eta asteburuan ondo pasatzea da asmoa. Bestalde, aurrera begira, Gaztelekuaren proiektua sustatu gura dugu. Aisialdi euskalduna, parte-hartzailea, hezitzailea, euren gustukoa, anitza... lortu gura dugu. **M.B.:** Adin tarte guztietan atara den gaia izan da gaztelekuak. Elkartzeko toki baten falta. Eguraldi eskasa egiten duenean, ez dute non elkartu. Egungo aisialdi ereduak lokaletara bideratzen dituzte: telebistagaz, makinatxoekin... Euren arteko harremanak sortzen dira, baina ez dira gehiago zabaltzen.

Zein izan beharko luke administrazioaren paperak?

M.B.: Gazteei entzun beharko lieke, eta kontuan hartu. Guk ere ez dakigu zeintzuk diren klabeak; horretarako antolatzen ditugu ekimenok: zeintzuk premia dituzten ikusteko, eta horren arabera lan egiteko. Adin tarte horri begira ezer gutxi dago.

I.S.: Espazioak ere eskaini beharko lituzke. Asteburuan eskolak ere itxita daude. Eurria eginez gero, non sartuko dira? Zertara bultzatzen ditugu? Etxean egotera, mugikorragaz ibiltzera, sare sozialetara... Ez dute gonorazko aisialdi eskaintzarik.

Inguruan badira gazte taldeak.

M.B.: Elorrion edo Abadiñon. Parte-hartze prozesu antzerakoa zabaldu zuten Abadiñon ere, eta gazteekin adostutako ekintzak antolatzen dituzte hama-bostean behin, zapatu edo domeketan. Oso pozik ari dira. Posible da aisialdi eskaintza on bat.



Berbarok eta aisialdian lan egiten duen hezitzaile talde batek sustatu dute.

aek

euskara praktikoa

30 urtean, 50.000
lagunek
ikasi dute euskara
gure 100
euskaltegietan

Eman izena

Sara Cozar Aktorea, AEKko ikasle ohia

Euskalduntze maila guztiak (A1, A2,B1,B2,C1)
4. maila (C2)
On-line ikastaroak
Autoikaskuntza (tutoretzatan oinarrituta)

DURANGALDEKO AEK: <http://www.aek.eus/blogak/durangaldekoaek/>

DURANGO / IURRETA/IZURTZA/MAÑARIA:

94 681 73 49/ 607 159 205 · abarrak@aec.eus

ELORRIO /ATXONDO: 607 600 901 · abizari@aec.eus

ZORNOTZA: 607 151 917 · zornotza@aec.eus

<http://www.aek.eus/blogak/zornotzakoaek>

BERRIZ: 662966827 · berriz@aec.eus

ZALDIBAR: 662966827 · zaldibar@aec.eus

ABADIÑO: 662966827 · abadino@aec.eus

Uribarri Barrutieta | Durango, 1997 | DRTko errugbilaria, Europako azpitxapelduna

> ERRUGBIA Markel Onaindia Europako errugbilari gazte onenen artean ibili zen joan zen asteburuan Uribarri Barrutieta, Espainiako selekzioak Liejan (Belgika) jokatu zen Europako Txapelketarako hautatu zuen eta. Selekzioagaz debuta egin, eta emaitza bikaina ekarri du etxera DRTko jokalariek. Izan ere, azpitxapeldun geratu zen bere taldea, finalen Ingalaterraren aurka galduta. Espainiakoagaz bakarrik ez, Basque Team Fundazio-k kide ere bada. Errugbia zainetan darama, eta kirola maite du; Kirol Hezkuntza ikasten hasi da unibertsitatean. Gaztea izan arren, duela hamabi urtezik ezagutzen du Arripauseta zelaia, eta bertan erantzun die ANBOTOren galderei.

Zorionak, Uribarri. Pozik, ezta? Eskerrik asko. Bai, oso pozik nago. Txapelketa ondo joan zen. Galesen kontra berdindu egin genuen lehen partiduan, eta beste biak irabazi Italiaren eta Irlandaren aurka. Gure multzoko lider geratu ginen sailkapenean. Gero, Belgikaren kontra jokatu genuen final-laurdenetan, eta Portugalen aurka finalerdietan. Finala Ingalaterraren aurka izan zen.

Zelako partaidetza eduki duzu? Titularra izan zara? Partidu guztiak hasieratik jokatu ditut, ordezkoak irten ziren partidu bat izan ezik.

Finala gogorra izan zen? Bai. Partidu gogorrena izan zen, txapelketan galdutako bakarra. Eurek sei hilabete zeramatzaten prestatzen, eta hori igarri egin zen zelaian. Gu lau egun baino ez ginen egon elkarrekin.

Herrialdeen arabera asko aldatzen da errugbiaren eragina edo indarra... Ingalaterrakoek esan ziguten milaka fitxa dauzkatala; 18 urtez azpikoetan lau talde dauzkate, eta guk bakarra, justu-justu.

Galdu arren, esperientzia ona izan da? Bai. Ez nuen espero selekziarako deitzea. Lehenengo, euskal federaziotik deitu zidaten, hautatu egin nindutela esaten. Gero, Espainiako selekziotik deitzera koan, erronka bat gehiago pilatu zitzaidan.

Lehenengo aldiz parte hartu duzu Espainiagaz? Bai. Entrenamenduetarako kon-

“Nire bizitza ez litzateke berbera izango errugbirik barik”

18 urtez azpiko Europako txapelketan azpitxapeldun geratu da Uribarri Barrutieta gazte durangarra



tzentratuta-eta egon izan naiz, baina partiduak jokatzeko ez.

Finalera ailegatzea sorpresa izan da taldearentzat? Hasierako multzoa ikustean, talde gogorrak zirela konturatu ginen, eta zail edukiko genuen-

“**Eurek sei hilabete zeramatzaten entrenatzen, eta hori igarri egin zen**”

la aurrera pasatzeko. Baina, Galesen kontra 12-12 berdindu genuenean, motibazioa handitu egin zitzaigun. Lau egunez bakarrik entrenatuta, esperientzia ona izan dela esan daiteke.

Zenbat urte daramatzazu DRTn?

Bada, sei-zazpi urtegi hasi nintzen jokatzeko. Beraz, hamabi bat urte egingo ditut aurten. Nire lehengusu nagusiak jokatu zuen, eta bera ikusten etortzen nintzen, lehengusu txikiagaz batera. Azkenean, biok eman genuen izena. Oraintxe bertan, nire bizitza ez litzateke berbera izango errugbirik barik.

DRTren denboraldia hastear egongo da, ezta?

Bai. Irail amaieran hasiko da denboraldia. Aurten, gainera, ondo ibiliko gara, iaz baino fitxa

gehiago dauzkagu eta. Jendea gogo gehiago ipintzen dabil.

Durangon errugbia indartsu dago?

Bai. Gainera, nire ustez gero eta indar gehiago hartzen dabil azkenaldian. Izan ere, iaz mutilen

“**Galesen kontra 12-12 berdindu genuenean, motibazioa handitu egin zitzaigun**”

lehen taldekoek oso denboraldi ona egin zuten, eta oihartzuna eduki zuten.

Hurrengo urteetan ere Espainiako selekzioan jokatzeko zaitugu?

Hori espero dut. Ea zelako txapelketak dauden eta hautatua izateko zortetik dudak. DRTn, behintzat, beti jarraituko dut.

Jende batek uste du errugbia oso kirol gogorra dela...

Ez. Jokoa ulertzean dago gakoa. Lurrera zelan jausi, edo plaketak zelan egin ikasten baduzu, ez da gogorra. Nik, hamabi urtean, lesio bakarra eduki dut, eta kasu hori burugogorke-riagatik izan zen. Kontaktuan oinarritzen den kirola da, eta, ondorioz, kolpeak jasotzen dituzu, baina ez da hainbesterako.

Borrokatzeko modu berrira egokitu beharko du Undak

Mailak birmoldatu ostean, borrokatzeko modua aldatu egin dela dio Maider Undak; Rioko Jokoetara sailkatzeko, estilo berrira moldatzen saiatuko da



Maider Unda borrokaldi batean. Maiderunda.com

> BORROKA LIBREA J.Derteano Joan den astean, AEBetako Las Vegas hirian jokaturako Munduko Txapelketan, hasi eta berehala kanporatu zuten Maider Unda. Lehenengo borrokaldia galdu egin zuen, eta, gainera, ez zitzaion bigarren aukerarik sortu. Ondorioz, txapelketan Rioko

Joko Olinpikoetarako banatzen ziren txartel barik geratu da.

Beste hiru aukera ditu Joko Olinpikoetara joateko eskubidea lortzeko: 2016ko apirilaren 15etik 17ra, Serbian (Zrenjanin herrian) jokatu den olinpiada aurreko torneooa, apirilaren 22tik 24ra, Mongolian (Ulan

Bator hiriburuan) jokatu den lehen *Last Chance* sailkapen torneooa, eta maiatzaren 6tik 8ra, Turkian (Istanbulen) izango den bigarren *Last Chance* torneooa.

Txapelketa horietara heldu arte dauden hileak entrenatzen eta bere jokamoldea eskakizun berrietara egokitzen emango

ditu. Izan ere, oraintsu, borroka libreko mailak birmoldatu egin dituzte, eta horrek, borrokatzeko estiloa aldatzea ekarri du: “Dezente aldatu da, eta orain arte, ez dut jakin izan hori irakurtzen”, adierazi du otxandiarrak: “Orain askoz dinamikoagoa da borrotzeko era, eta erasotzerako orduan, kontraerasora itxaroten dute aurkariek”.

Horixe gertatu zitzaion Yase-min Adar turkiarraren kontra borrokaldian: “Bere kontra lehen borrokaldia izan nuen. Bere bideoak ikusita nituen, eta banekien zer egiten zuen, baina ez nuen espero berak kontraerasoa hain erraz egitea”. Borrokaldi laburra izan zen.

Baina, Munduko Txapelketak zertan hobetu behar duen ikusteko balio izan dio: “Badakizu zer lan egin behar duzun, eta, orain, hori praktikan jartzea falta da”.

Olinpiada aurreko torneoak lehiatu beharra ez da egoera arrotza Undarentzat. Beijingo (Txina) bere lehenengo jokoetara Munduko Txapelketatik sailkatu zen, baina lau urte geroago, Londresekoetara sailkatzeko, orain aurretik geratzen zaien bide berdina egin behar izan zuen. Orain atseden hartuko du, eta urriari hasiko da entrenatzen.

ADITUAREN TXOKOA

KOIKILI LERTXUNDI

Futbolaria eta enpresaria



Merituak meritu

Super txapeldunak! Hau izan da, abuztuan, Athletic zaleen artean gehien erabili den hitza, hitz superlatiboa, handia, sekulakoa! Erronka latza izanda, inork gutxi espero zuen unean etorri da hainbeste desiratutako titulua!

Hainbatek txapelketa honi meritua kendu arren, kontuan hartu behar da noren aurka, nola, eta zein arma erabilia izan den; balentriari meritua aragotzen dio duda barik!

Batetik, ohiko hamaikakoan aritzen diren zenbait jokalarik ezin izan dutelako, edo erdizka parte hartu dutelako (Muniain, Rico, Iturraspe, San Jose...). Bartzelonak Neymarren edo Albaren bajak zituen; gehiago ordea, Athleticek. Bigarren, “titularren” ordezkioak, talde batean zein bestean, izenez, izanez eta ustez, ezberdinak zirelako.

Hirugarrenez, meritua bi partidutan Athleticen ez delako galdu, oso zaila Bartzelonaren aurka, eta gainera, San Mamesen, aspaldiko partez, errepasso itzela emanez (4-0). Munduko talderik onenaz ari gara hitz egiten, partida batean egun txarra izan dezakeena, baina hurrengoan dena hankaz gora jartzeko gai ere badena! Laugarrenez, taldeak bi urte hauetan lortu dituen arrakastek (4. postua ligan, Europarako sailkapenak, txapeldunen liga, kopako finala, super kopako finala) azken urteetako joera hobetu dutelako duda barik.

Eta meritua meritu, agian albisterik pozgarriena da harrobia egon badagoela, maila eta etorkizun aparteko euskal jokalaria daudelako, eta be-lanaldi berri ere, Barçaren eta Madrilen orde, Athletic aukeratuko dutelako!

Mendi bizikleta martxa, Otxandion

09:30ean hasiko da Otxandioko plazatik

> BIZIKLETA J.D.

Zapatuan, mendi bizikleta martxaren 10. aldia egingo dute, Otxandion. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke: 12 euro izango da federatuentzat, eta 15 federatuta ez daudenentzat.

Ibilbide bi prestatu dituzte. Ibilbide luzeak 40 kilometro izango ditu eta 09:30ean hasiko da. Otxandiotik San Martinera joango dira, eta handik, Aldoia, Gordobil eta Nebera pasatuta, Gomilatzerara helduko dira. Azkenengo tar-teak Mirugain, Kerixara eta Kondebasotik

eramango ditu martxako parte-hartzaileak.

Ibilbide laburrak 17 kilometro izango ditu, 09:45ean hasiko da eta luzea baino errazagoa da. Otxandion hasi, eta Presazelai, Aldoia, Gordobil eta Gomilatzerara joango dira, eta handik, Inolako bidea hartuta, Otxandiora itzuliko dira. Denentzat dutxak egongo dira amaieran. Bigarren ibilbide hau samurragoa den arren, badu zailtasun maila bat, eta, horregatik, 10 urtetik beharakek ezingo dute probetan parte hartu.

Abadiño-Zaldua derbia Maila Gorena hasteko

> PILOTA

Asteburu honetan, Maila Goreneko liga denboraldia hasiko da. Abadiño eta Zaldibarko Zaldua dira maila horretan Durangaldeak dituen ordezkari biak, eta, asteburuan, derbia jokatu dute Astolan. Partidua zapatuan, 16:00etan, hasiko da. Azken urteetan, sarritan egokitu zaie ligako lehen partiduetan elkarren kontra jokatzeko.

Bere aldetik, Durangoko Kulturalak etxean jokatu du. Domekan, 12:00etan, Baskonia taldea hartuko du Tabiran. Baskonia bigarren tokian sailkatuta dago.

Amorebieta behetik irten da, taldeko lanagaz

> FUTBOLA

Denboraldiko lehenengo partidua bietan pattal ibili ostean, Amorebietak gora egin du sailkapenean. Talde lanean eta sendotasunean oinarritu ditu harrezkero lortutako garaipen biak.

Joan zen asteburuan 0-2 irabazi zuen Ebroren zelaian. Gol biak lehenengo zatian heldu ziren, eta, bigarren, ez zuten aparteko estuasunik igaro.

Asteburu honetan, Majadahonda taldea hartuko dute etxean, Urrixe futbol zelaian. Partidua 17:00etan hasiko da, zapatuan.

PLATERUENA

Landako Hiribidea, 4A

946 030 300

www.plateruena.eus

ETXEKO GOSARIAK

Astehenetik ostiralera
9:00etatik aurrera

BIZKOTXOAK
TOSTADAK
PINTXOAK
CROISSANT-AK

IGANDEETAKO MENU BEREZIAK

Astehenetik larunbatera
eguneko menua

“Ate irekien astean gure eskaintza berria aurkezteko asmoa dugu”

Hasi berri den ikasturtean Duranagoko Dharananda yoga zentroan hamar profesionalek dihardute lanean; Oier Estankona da yoga zentroko zuzendaria eta baita irakaslea ere



Dharananda yoga zentroko lan-taldea. Goiko ilararen erdian, Oier Estankona zuzendaria.

> DHARANANADA

Zer da Dharananda? Zelan eta noiz sortu zen?

Dharananda yoga zentro edota eskola moduan sortu zen, eta horrela izaten jarraitzen du gaur egun. Durangaldean sortutako lehenengo yoga zentroa da, eskualdeko handiena, eta erreferentea yogaren irakaskuntza mailan. Mikel Estankonak beste bazkide batzuekin batera sortu zuen 2001. urtean. Laster 15. urteurrena izango dugu, beraz! Mikel aitzindaria da Durangaldean, eta 35 urte daramatza Yogaren oinarri eta onurak gertutasunetik eta buruz-buru zabaltzeko lanetan. Bide horretan ekinez bultzatu zuen Dharananda.

Gaur egun zu zaude zuzendari-tza lanetan, ezta?

“*Yoga arloan, Dharananda aitzindaria da Durangaldean*”

“*Yoga Dinamikoa eta Terapeutikoa landuko ditugu ere*”

Bai, zuzendaritza eta yogaren irakaskuntza lanetan ere. Bartzelonan atera nuen Yoga Irakasle titulua, han bizi izan nintzen urte askotan zehar. On-

doren, Durangora, sustraietara itzultzea erabaki nuen azkenik, yoga eta hazkuntza pertsonalari buruzko hainbat proiektuekin buruan... eta horretan dihardut orain, Dharanandaren eskutik. Leku ezin hobea iruditzen zait momentu honetan ideia horiek guztiak gauzatu eta bultzatzeko.

Zein da zentroaren helburua?

Nahiz eta yoga izan Dharanandaren oinarria, norberaren gorputza eta burua sakonki ezagutzeko lanarekin harremana duten ekintza desberdinak sustatzea da gure helburua. Gizarte helduago eta askeago bat bihurtzeko laguntzatxo bat izan nahi du Dharanandak, baina gure ingurua hobetu ahal izateko, alde zuzenetik, edo aldi berean, ezinbestekoa iruditzen zaigu norberaren barnekoak lantzea.

Aurten, eskaintza zabaltzeko asmoa duzue. Zeintzuk dira berrikuntzak?

Bai, hasi gara dagoeneko. Apustu sendoa egin dugu, gainera! Iaz, adibidez, zentroa goitik behera berriztatu genuen, eta aurten, 3 eskaintza berri ditugu: Yoga Dinamikoa (Vinyasa), Yoga Terapeutikoa (Chikitsa) eta Hazkuntza Pertsonalerako Psikoterapia (Gestalt). Tailer bereziak ere egingo ditugu hainbat asteburutan, eta aurrera segitzen du Yoga Irakasle izateko zein Tai Chi edo Kung-Fu monitore izateko formakuntzak. Eskaintza benetan sendoa da orain!

Yoga irakasle izateko formakuntza bat ere badaukazue...

Beste aurrerapauso bat izan zen hori, eskolaren heldutasunaren ondorioa. Aitzindariak gara horretan ere, Durangaldean egiten den lehenengoa da eta. Gure formakuntza honek indar handia hartu du gainera, eta estatu mailan egiten diren onenatarikoen artean dago, Zaragozako Darshana Yoga Eskola Integratiboarekin egiten dugun elkarlanari esker. Izen-ematea zabalik dago oraindik, urriaren 24an hasiko den aurtengo ikastarorako.

Eta ordutegiak?

Ordutegiak asko zabaldu ditugu. Goizetan yoga klase ugari dago, eta ostiralak ere mota guztietako ekintzez beteta daude orain. Eguerdietan ere badauzkagu klaseak. Gainera, eskaintza eta deskontu oso bereziak ditugu kurtso hasiera honetan!

Bestalde, urriaren 5etik 9ra, “ate irekien astea” izango dugu, dohainik, zentroa ezagutzen ez dutenentzat. Praktikatzera datorrenari matrikula oparitu dugu, gainera!

Lan-taldea ere handitu duzue... Bai, oso pozik gaude sortu dugun taldearekin! 10 pertsona gara jada! Beti aritu izan gara sinergien alde, eta konplementagarritasunean oinarritzen den eskolaren filosofia gauzatu ahal izateko, talde benetan konpletua lortu dugu. Oso lan giro polita daukagu!

Yoga aurkikuntza bat izaten da askorentzat. Denbora daramazue Durangon. Aurkikuntza horrek zein eragin izaten du jendearengan?

Oso eragin sakona izaten du. Lehendabiziko klaseetan, ezezagunak diren gorputzaren atal asko konziente bihurtzen

“*Yoga irakasle izateko gure formakuntzak indar handia hartu du*”

“*Eskaintza eta deskontu oso bereziak ditugu aurten*”

“*Dohaineko ate irekiak izango ditugu urriaren 5etik 9ra*”

dira eta sentsazio berri askotaz ohartzen gara bat-batean. Bepizte honekin batera, gure nerbio-sistema sosegatu eta orekatu egiten da. Buruaren gorabeherak baretzen dira orduan, eta gure eguneroko kezkek eta gatazkak maila erlatiboago batera pasa ditza-kegu. Buruaren baretasunarekin batera hasten da yogaren benetako esentzia, benetako askatasunaren eta zoriontasunaren ateak zabaltzeko aukera.



Yoga, Tai Chi, Chi Kung, Kung-Fu, Gihar Kateen Luzaketak,
Hazkuntza Pertsonalerako Psikoterapia. Nagusi eta umeentzat.

Ate irekiak irailaren 26an (larunbata) eta urriaren 5etik 9ra.

Ordutegi zabala, 9etatik 22etara.

Asteburuetako tailerrak.

Eskaintza eta deskontu oso bereziak!

Zatoz! Landakon gaude.
Gallanda kalea, 16, Durango
www.dharananda.com · 94 603 22 19

Blokeari eutsiz, iazko lorpenak errepikatzea du helburu Tabirakok

Aurtengo aurkezpena Baqueren egoitzan egin dute, Landakon beharrean



Tabirako Baqué gizonen eta emakumeen talde nagusiak. Tabirako Baqué

> SASKIBALOIA J.D.

Tabirakok egin du aurtengo taldeen aurkezpena. Aurten, nobedade moduan, Baqué enpresaren egoitzan izan da ekitaldia, eta ez Landako kiroldegian. Talde nagusi biek urrian ekingo diote denboraldiari, eta, oro har, iazko blokeari eustea lortu dute. Horrela, gizonen “apurka-apurka goranzko pauso bat” eman dezaketela uste du Ina Mendibe klubeko presidentek. Emakumeak bikain dabilta azken denboraldietan, lauko final bat tarteko, eta maila horri eutsi gura diote. Edozelan ere, emaitzen gainetik, edo gutxienez euren mailan, klubeko filosofiari eustea da helburu nagusia: herriko gazteei saskibaloian jokatzeko aukerak eskaini, lankidetzak sustatu, eta Tabirakoren zigilu diren balioak txertatzea.

Gizonen aulkian, Iskander de Dios entrenatzaileak jarraituko du. Jokalari bik utzi dute taldea, eta beste bi etorri dira. David Tudela Tabirakora itzuli da, iaz EBA mailako Askartza taldean ibili ostean. Xabi Arroita, aldiz, juniorren taldeetik igo dute. Beste gazte batzuek bigarren taldean jokatu dute, apurka nagusien dinamikan sartzen joateko.

Emakumeen aulkian ere, nobedaderik ez, eta Jesus de Vicentek darrai. Zuriñe Oruek, Nerea Larrazabalek eta Maria Muguerezak taldea utzi dute. Leire Intxaustegi da, oraingoz, lehen taldeko aurpegi berri bakarra; juniorren taldeetik igo dute.

Harrobiari aupada

Aurten, 12 talde federatu izango ditu klubak, ohi baino apur bat gutxiago. Aldiz, eskola mailako taldeak 38 izango dira, iaz baino gehiago. Azken aldiak umeak

saskibaloira erakartzea kosta egiten dela ikusita, hasi berri duten legegintzaldian zuzendaritzak harrobiari aupada berri bat ematea du helburu: “Zarata egin behar dugu, gazteak geureganatzeko lanean sakondu gura dugu. Saskibaloira ilusioa piztu behar diegu, eta horretan egingo dugu ahalegina”, azaldu du Mendibek. Arlo horretan, eskolek urtero egiten duten lana azpimarratu du, eta euren eskutik lanean jarraitzeko asmoa dute.

Gizonen Baqué Torneoa jokoan, asteburuan

Asteburuan, gizonen Baqué Torneoa jokatu dute Landako kiroldegian. Zapatuan finalerdiak jokatu dituzte; 16:45ean, Deusto Loiola Indautxu Donibane Lohizuneko Nivelle Basket taldearen aurka arituko da, eta, 19:00etan, Tabirako Baqué-Paules taldeen artekoa hasiko da.

Domekan, 10:00etan, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua jokatu dute, eta, 12:00etan, zapatuko irabazle bien arteko finala jokatu dute.

Joan zen astean, emakumeen Baqué Torneoa jokatu zuten. Finalerdian Tabirako Baquék galdu egin zuen Azkoitia-Azpeitiaren kontra (40-49), baina, aurkarien maila ikusita, primeran aritu ziren. Gipuzkoarrek irabazi zuten torneoa, domekako finalean Angle Cote Basque taldea 65-55 menderatuta. Finalaren aurretik, Tabirakok Ventanas Arsan Astilleros menderatu zuen (71-51), eta hirugarren postua lortu zuen etxeko torneoan.

gehien estutu zuena, eta 22 tanto egin zituen Hossegorreko bikote indartsuaren aurka. Iker Abazek ezin izan zuen partidua hori jokatu, eta, ondorioz, Asier Azkaratek Mikel Alberdigaz jokatu zuen Durangoren partetik.

Asteburuan bigarren jardunaldia jokatu dute. Zapatuan, 17:30ean, Markina, Noain eta Gasteiz faborito izango dira Tolosa, Hondarribia eta Pauren kontra, hurrenez hurren. Domekan, 12:00etan, beste kanporaketa bi jokatu dituzte.

Faboritoek aurrera egin dute Durangoko zesta torneoan

Lehenengo jardunaldian ez da sorpresarik izan

> ZESTA

Durangoko San Fausto Zesta Txapelketako lehen jardunaldian faboritoek nahiko erraz atera zituzten aurrera euren norgehiagokak. Joan zen asteburuan jokatu dute bost par-

tiduetan, Berritua, Biarriz, Hossegor, Donibane Lohizune eta Bidart ordezkatzeko zituzen bikoteek Donostia, Cabanillas, Durango B, Lekeitio eta Zumaiakoak kanporatu zituzten. Durango B izan zen aurkaria

Gaurisa-Nissan DRTren babesle hiru urterako

Urte bakoitzeko Nissan Micra bat zotz egingo dute

> ERRUGBIA J.D.

Durango Rugby Taldeak eta Nissan Gaurisa hiru denboraldirako babes akordioa sinatu dute. Babesak dirauen artean, errugbi taldeak Durango Nissan Gaurisa deituko dira.

Errugbi klubak diru kopuru bat jasoko du urtero, eta, horrez gainera, denboraldi amaieretan Nissan Micra auto bat zotz egingo dute. Guztira, hiru auto zozkatuko dituzte, denboraldi bakoitzeko bat. Denboraldian zehar txartelak salduko dituzte.

Lau urtean babeslerik barik egon ostean, Nissan Gaurisaren partetik horrelako laguntza jasotzea “oso inportantea” zela azpimarratu zuen Juan Manuel Iriondo DRTko presidentek akordioa sinatzeko egindako

ekitaldian: “Ospatzekoa da”. Nissan Gaurisako gerente Jassone Rodriguezek alde biek elkarbanatzen dituzten balioak azpimarratu zituen.

Denboraldiari begira

DRTko presidentek talde nagusi bien gainean ere jardun zuen, kazetarien galderei erantzunez. Gizonen talde nagusiko Oskar Astarloari hiru gauza eskatu dizkio: ligan ez sufritzea, klubaren estiloa eta balioak zaintzea, eta bigarren taldea indartzea. Emakumeen taldeagaz “ilusioatuta” daudela azaldu zuen. Etxeko 20 bat fitxa dituztela aipatu zuen, eta Mungiatik lau bat etorri direla: “Etxeko talde bat izatea Durangon bertan oso inportantea da”.



DRT, Gaurisa Nissan eta Durangoko udaleko ordezkariak akordioaren sinaketan.

Cafes Baquen, lau ordezkari hiru kanporatu dituzte

> PILOTA

Durangaldeak lau ordezkari hiru kanporatu dituzte, eta horietatik hiru kanpoan geratu dira lehenengo jardunaldian. Hirurak gazte mailakoak dira.

Jon Iparragirre zaldibartarrak 6-22 galdu zuen Karregal galdakoztarraren aurka. Paul Sagasta elorriarrak gehitxoago estutu zuen Barturen laukiztarra, baina ez zen nahikoa izan: 12-22. Gontzal Azkarraga elorriarra, aldiz, aurrera egiteko zorian izan zen. Partidu estuan 20-22 galdu zuen Munitibarko Muruagaren kontra.

Beraz, txapelketa hasi eta berehala, gazte mailako ordezkari barik geratu da Durangalde. Kadeteetan Durangoko taldeagaz dabilen Aingeru Olaguezagaz oraindik ez du jokatu; multzoburua da, eta irailaren 22an izango du lehen partidua.

Peru Barañano Belgikan Bizkaiko selekzioagaz

> TXIRRINDULARITZA

Junior mailako Bizkaiko txirrindularitza selekzioak Belgikako UCI mailako hiru probatan parte hartuko du asteburuan, eta taldea osatuko dutenen artean, Beste Alde-La Tostadora taldeko Peru Barañano dago.

Errepideko lasterketa bitan eta erlojupeko beste batean arituko da Barañano Belgikan

rañano dago. Iker Elortegik, Jon Gilek, Iñigo Landaluzek, Eukeni Rotaetxek eta Gaizka Sotilek osatuko dute Bizkaiko selekzioa. Zapatuan eta domeka arratsaldean, 99 eta 102 kilometroko probak izango dituzte. Domeka goizean, erlojupeko batean ere parte hartuko dute.



**EUSKERAZ
BE BAI!**

ZORNOTZA Udal Euskaltegia

2015-16 IKASTURTEA

Astean 6 ordu, astelehenetik ostegunera (200 ordu)

Astean 3 egun taldean, bakarkako lanarekin eta tutoretzekin (239 ordu)

(LANGABETUEK 10 €)

Aisa (60 ordu) • Etorkinentzako euskara
Dendaketan (60 ordu) • Dendarientzako euskara
Tabernariak (60 ordu) • Ostalarientzako euskara
Guraso taldeak (60 ordu) • Gurasoentzat euskara
Jubilatu taldeak (60 ordu) • Jubilatuentzat euskara

(10 €)

Izen-ematea irailaren 1etik 22ra
Zornotza Udal Euskaltegian

94 6732026

euskaltegia@amtx.eus

San Pedro kalea, 5

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575 €tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- TABIRA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETA TORRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000 €
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. 1 eta 2 logelakoak. Trastelekuarekin. 128.000 €tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta frutarbolekin.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Arku ederrekoa sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailan kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.

ETXEBIZITZAK SALGAI

MATXINESTARTA 320.000€



- Etxebizitza handia. 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta 22 m2-ko ganbara.

ZABALE 290.000€. NEGOZIAGARRIA



- Etxe osoa kanpora begira. 99 m2. 4 logela, egongela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, eta komun 2. Balkoia. Garajea.

MONTEBIDEO 204.000€



- Berriztatua. 2 logela, egongela, sukaldea eta komun 2. Igogailua.

ASKATASUN ETORBIDEA 159.000€



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Igogailua.

KURUTZIAGA 125.000€



- 3 logela, sukalde-egongela eta komuna. Balkoia eta ganbara. Berogailua eta igogailua.

SAN FAUSTO 75.000€



- Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berogailua eta 12 m2-ko trastelekua.

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta 2 komun.
- ANDRA MARIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 terraza handi.
- ARAMOTZ: Halla, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ARTEKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRENTENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxoa, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela 2. Portxea. Garajea eta trastelekua.
- GOIENKALEA: logela, sukalde-jangela eta komuna. 2 terraza. Trastelekua.
- JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- JUAN ITZIARCO: 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
- JUAN ITZIARCO: 2 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- KOMENTUKALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: 2/3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Terraza.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Despentsa. Balkoia.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- URKIAGA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- ZEHARKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

IPARRAGUIRRE



- Etxebizitza altua. 98 m2. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Trastelekua eta garaje itxia. **271.000€.**

BERRIZ. B. GABIOLA



- 110 m2. ERDI BERRIA. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde eskegitokiarekin. **180.000€.**

ASKATASUN ETORBIDEA



- 3 logela, (logela bat terrazarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. Etxe osoa kanpora begira. **260.000€.**

SAN INAZIO



- 3 logela, 2 komun, egongela terrazarekin, sukaldea eta eskegitokia. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. **246.000€.**

MATIENA



- 4 logela, 2 komun, egongela eta sukalde terrazarekin. Ganbara eta garajea. **209.000€.**

ERDIALDEAN



- 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta despentsa. Igogailua. Leiho berriak. **130.000€.**

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Irailaren 18an,
18:00etan, Berrizen

Ilusioa

Berrizko udaletxeko lorategian eskainiko dute Ortzia Acostak eta David Madinabeitiak 'Ilusioa'. Besteak beste, akrobaziak eta zuzeneko musika uztartzen dituen ikuskizuna da, kale antzezlan. Berbarik bako ikuskizuna da, umeentzako zein ikusle helduentzako ere aproposa.



Erakusketa

:: DURANGO

IRAILAREN 20ra arte

'Aldharrikatuz' erakusketa, San Agustin kulturgunean.

IRAILAREN 27ra arte

Arka Devbil argazkilariaren 'A flor de piel', Arte eta Historia Museoa.

IRAILEAN

Jon Gorroñoren 'Ilustrazioa eta poesia', Artea liburutegian.

:: ELORRIO

IRAILAREN 21era arte

'Zuri-beltzean klik: Durangaldeko iragana argazkietan', kultur etxean.

:: ZORNOTZA

IRAILAREN 30era arte

Eider Eibar ilustratzailearen 'Barrukoa kanpotik', Zelaieta zentroan.



Antzerkia

:: ABADIÑO

IRAILAREN 19an

20:00etan, 'El arte de las putas', Errota kultur etxean.

:: BERRIZ

IRAILAREN 18an

18:00etan, 'Ilusioa', udaletxeko lorategian.

:: ELORRIO

IRAILAREN 18an

22:00etan, 'El arte de las putas', Arriolan.



Musika

:: DURANGO

IRAILAREN 19an

20:30etan, 'Burdin hariak eta plastikozko gorailak', San Agustin kulturgunean.



Zinema

:: ELORRIO

IRAILAREN 24an

19:00etan, 'Temps de CanVi(e)s' dokumentalaren aurkezpena, Gaztetxean.



Ikastaroa

:: ZALDIBAR

IRAILAREN 22ra arte

11-14 urtekoentzako bertso eskolan izena eman daiteke, liburutegian.



Jaia

:: ZALDIBAR
Kultur arteko jaia

IRAILAREN 19an

10:00etan, parte-hartzaileak elkartzea.

11:00etan, jatordua prestatzea, kalejira perkusio eta trikitixarekin.

11:30etan, marokoar ogia zartaginean egiten ikasteko tailerra.

12:00etan, topaketaren hasiera, eta musika emanaldiak; Ibon eta Maider txalapartariak, Zaldibarko umeen dantza-taldea, Ainhoa, Ghan kultur elkartearen txaranga.

13:00etan, jakien dastaketa.

14:30etan, herri bazkaria, bertan prestatutakoagaz zein etxetik ekarritakoagaz.

16:00etan, musika emanaldiak; Portugal, Kolonia, Ekuador, Mali, Senegal eta Zaldibarko musikariak.



Jaiak

:: ABADIÑO
Aitte Kurutzeko jaiak

IRAILAREN 18an

20:00etan, parrillada.

21:00etan, erromeria Lotxo taldeagaz.

22:00etan, umeen patata dantza. Ondoren, txokolatea banatuko da.

00:00etan, helduen patata dantza.

IRAILAREN 19an

17:30etan, umeentzako ikuskizuna. Ondoren, tortilla txapelketa.

22:30etan, kantaldia.

IRAILAREN 20an

12:30etan, kalejira, dantzari afrikarrekin.

14:30etan, 'maleta siku' bazkaria.

17:30etan, erromeria.

:: DURANGO
Goienkaleko jaiak

IRAILAREN 24an

14:00etan, jubilatuen bazkaria, Anboto tabernan.

19:00etan, meza, Santa Anan.

19:30etan, pintxo-potea.

20:00etan, txupinazoa eta aurreksua.

20:00etan, Sugarri fanfarria.

IRAILAREN 25ean

20:00etan, Sugarri fanfarria eta buruhandiak.

22:30etan, Durangoko musika taldeen kontzertuak, Andra Marian.

IRAILAREN 26an

12:30etan, buruhandiak eta umeentzako jolasak, Berbaroren eskutik.

13:00etan, Kantu-Lagunekin poteoa eta sardina-jana.

13:30etan, koadrilen paella txapelketa.

16:00etan, mus txapelketa.

16:30etan, igel txapelketa.

18:30etan, DJ Elepunto.

19:30etan, Zaparrada.

21:30etan, DJ Elepunto.

IRAILAREN 27an

13:00etan, Musika Bandaren emanaldia.

13:30etan, patata-tortilla txapelketa.

17:00etan, umeentzako jolasak, Berbaroren eskutik.


19:00etan, txokolatada.

19:30etan, jaien amaiera trikitilariarekin.

:: MAÑARIA
Aitte Kurutzeko jaiak

IRAILAREN 20an

11:00etan, Meza eta dantzariak, Aitte Kurutzeko ermitan.



:: DURANGO | ZUGAZA

Everest

- barikua 18: 19:30/22:00
- zapatua 19: 17:00/19:45/22:30
- domeka 20: 19:00/21:15
- martitzena 22: 20:00

Bizet-en Carmen (opera HD-an)

- astelehena 21: 20:30

2. ARETOA

El corredor del laberinto. Las pruebas

- barikua 18: 19:30/22:00
- zapatua 19: 17:00/19:45/22:30
- domeka 20: 18:30/21:00
- astelehena 21: 18:30
- martitzena 22: 20:00

Everest

- barikua 18: 19:30/22:00

:: ELORRIO |
ARRIOLA

Ghadi

- barikua 19: 22:00
- zapatua 20: 20:00
- domeka 21: 20:00

:: ZORNOTZA |
ZORNOTZA ARETOA

Everest

- barikua 18: 20:15
- zapatua 19: 19:30/22:30
- domeka 20: 17:00/20:00
- astelehena 21: 20:15

La casa mágica

- domeka 20: 17:00

IRAILEKO AGENDA

19

ZALDAI MENDI TALDEA

IURRETAKO VI. MENDI MARTXA

09:00 Ibilbidea: Iurretako plaza - San Andres - Neberondo - Atxurkulu - Mugarrikolanda - Leungane - Inungane - Aramotzetik mendi zeharkaldia - Aizkorri - Marmol - Katatzka - Santa Apolonia - Iurretako plaza.

21

HAURREN IRAKURKETA KLUBA

HERRI BIBLIOTEKAN

17:00 (8-12 urte) Aurkezpena.

GIZARTE ONGIZATE SAILA - HERRI BIBLIOTEKA

Emakumeen literatur tailerra - IBARRETXE KULTUR ETXEA

Izena emateko epea zabalik irailaren 24ra arte.
Informazio gehiago: 946 812 726 - www.iurreta.net

HERRI BIBLIOTEKA - IBARRETXE KULTUR ETXEA

Irailaren 24ra arte epea zabalik:
-Azalaerako ipuinak (0-3 urte).
-Haurren irakurketa kluba (3-12 urte).
-Helduen irakurketa kluba.
Informazio gehiago: 946 812 726 - www.iurreta.net

GIZARTE ONGIZATE SAILA - KIROLARIEI BEKAK

2015. urteko diru-laguntzak eskatzeko deialdia eta oinarri arautzaileak, epea zabalik urriaren 9ra arte:

- Emakumeentzako kirola sustatzeko (herriko kirol elkarteak).
- Iurretako banakako kirolariei bekak emateko.

GIZARTE ONGIZATE SAILA

DURANGALDEA BELDUR BARIK JARRERA 2015 Lehiaketa

Lehiaketaren baseak www.iurreta.net eta www.beldurbarik.org webguneeetan.
Informazioa: Ibarretxe kultur etxean, eta 946 200 342 telefonon.

> BOTIKAK

BARIKUA, 18 09:00-09:00	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango	ASTELEHENA, 21 09:00-09:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Navarro Artekalea 6 - Durango
ZAPATUA, 19 09:00-09:00	Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Etxebarria Montevideo etorb. 2 - Durango	09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-13:30	MARTITZENA, 22 09:00-09:00
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango	Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	09:00-22:00
Navarro Artekalea 6 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango	EGUAZTENA, 23 09:00-09:00
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango	Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango
De Diego Intxaurren 22 - Durango	Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	09:00-22:00
Bartolome Gabiola 2 - Berriz	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio	EGUENA, 24 09:00-09:00
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza	De Diego Intxaurren 22 - Durango
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
DOMEKA, 20 09:00-09:00	09:00-22:00
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguazteneko 14:00ak arteko epea



> Neska bizkor eta polit honek 9 urte potolo egiten ditu. Zorionak eta patxo handi bat.



> Zorionak, bikote! Beñatek 12 urte eta Ekainek 8 urte beteko dituzuelako. Oso ondo pasau.



> Onetak eta Elaiak irailaren 23an 9 urte beteko dituzte. Musu haundi bana gure kirolarixei! Segi horren alai ta majak.



> Urteguna dela eta, Ana Belenek garagardotara gonbidatu nahi gaitu. Pastelak ere bai! Zorionak Matienatik!



> Txelu krak bat da gitarra jotzen. Bere urteguna ospatzeko ere ea hartzen duen eskuetan! Zorionak Amatziko koadrilaren partez!



> Gaur, irailak 18, Jone Bikandik 7 urte betetzen dauz. Zorionak familia ta lagun guztixen partez, eta ondo ondo paseu gure sorgintxue.



> Zorionak Malen etxeko printzesari, aitatxo ta amatxon partez



> Zorionak etxeko txikiari, 9 urte betetzen ditu-eta. Bere familia eta lagunen partez, ondo pasa eguna!



Ermodo, 11
DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozategia

Zorionak, Jon (602 znb)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

IRAILA-URRIA

2015 EGITARAU

23 IRAILA EGUAZTENA **AURKEZPENA**

HAUR LITERATURA ARETOA
web berriaren aurkezpena
Berbaro elkarte

19:00etan. Fabrikari

23 BARIKUA **TRIBIALA INGLESEZ**

PUB QUIZ

Sarrera: 50 zentimo. (Bote moduan erabiliko da)
Gehienez 5 lagunez osaturiko taldeak. Ingeles hizturi
Sariak: ekialdietarako sarrerak, menu txartelak...

21:15etan.

30 BARIKUA **MUSIKAFESTIBALA**

EH EZTANDA! EH-KO PUNK-OI! JAIALDIA

NABAT/ THE LAST RESORT /KNOCKOUT-4
MADSKINS/ DOUBLING BOYS/ NOM/
CRIM/ SUBCULTURE-4...

Informazio gehiago: www.facebook.com/EHEztanda
Bonoak urriaren 1etik aurrera salgai: 30€

24 IRAILA EGUENA **KANTUZALEENTXOKOA**

KANTULAGUN

Aurkezpena

19:00etan.

25 DOMEKA **KANTUAREN TARTEA**

KANTALDIA

17:00etatik aurrera.

31 ZAPATUA **MUSIKAFESTIBALA**

EH EZTANDA! EH-KO PUNK-OI! JAIALDIA

4 PROMILLE/ ISKANBILA/HEADLINERS
STRIKE BACK-3/FRIDAYS CREW/
NEGATIVE APPROACH/ ULTIMA SACUDIDA

Informazio gehiago: www.facebook.com/EHEztanda
Bonoak urriaren 1etik aurrera salgai: 30€

03 ZAPATUA **BAKARRIZKETA**

MIKI NADAL

www.plateruenasarrerak.eu

19:00etan. Sarrera: 14/16€

28 EGUAZTENA **JAIALDIA**

PLATERUENAREN
11. URTEURRENA

20:00etatik aurrera.

www.plateruenasarrerak.eu
www.plateruena.eus

“Sekulako mapamundia dut gelan, hori izan dut inspirazio iturria”

Jon Ander Larreategiren ‘Munduarekin bukatuko al dugu?’ proiektuak irabazi du Bizikletarte lehiaketa

> AKUILUA Aitziber Basauri Mundua estoldetan behera ikusi daiteke egunotan Duran-goko kaleetan. Mundua amaitu dezaketen arrazoiengurua hausnarrarazi gura du horrela Jon Ander Larreategik, Mugikortasun Jasangarriaren Astearen barruan antolatutako II. Bizikletarte lehiaketaren irabazleak. Hilabete inguru eman du proiektua garatu eta gauzatzen. 700 euroko saria lortu du.

Mundua urtuta. Holan ikusten duzu etorkizuna epe luzera? Bai, horrela aurreikusten dut, eta oinarrizko bizi

ohiturak aldatzen ez baditugu, mundu honi amaiera emango diogu lehenago edo geroago.

Mundua estoldetan behera doala irudikatu duzu. Zer esan gura duzu lan horregaz?

Gizakiaren jarduerak eragin negatibo handia sortzen duela ekosistemarekiko, eta munduari akabera ematen ari garela. Irudi honekin metafora antzeko bat egin nahi izan dut, mundua estoldetatik behera botako bagenu bezala.

Mugikortasun jasangarriaren inguruan kontzientzia hartzea izan duzu hel-

buru? Nola garatu duzu zure proiektua?

Obra honek ez du zuzenean mugikortasun jasangarriaren sustapena adierazten, oso esplizitua izan ez dadin. Lan honek munduari amaiera eman diezaioketen arrazoiengurua hausnartzea du helburu, eta mugikortasunak pisu handia hartzen du kutsatzaile handien artean.

Mugikortasun jasangarriari dagokionez, oraindik ere bide luzea dugu egiteko.

Beste arlo askotan bezala, gauza asko daude egiteko oraindik. Aurtengo Mugikortasun Astearen goiburuak dioen moduan, *Aukeratu. Aldatu. Konbinatu.* Garrantzitsua da ibilgailu mota ezberdinak konbinatzea, ibilgailu pribatu eta publikoen kasuan; momentu edo egoera bakoitzerako egokiena den ibilgailua erabiltzea, kutsatzen duten ibilgailuak asko erabiltzea ekiditea, eta hauen erabilera optimizatzea, auto partekatua, adibidez.

Nola hartu duzu zure lana aukeratu izana? Espero zenuen?

Egia esan, ez. Ez nuen espero nire lana irabazlea izatea, nire profila ez dago eta zuzenean arteagaz lotuta. Ustekabea izan da niretzat irabaztea.

Besteak beste, orijinaltasuna eta bideragarritasuna izan dituz kontuan epaimahaiak irabazlea aukeratzeko orduan. Nola bururatu zitzaizun ideia?

Sekulako mapamundia daukat gelan, hori izan dut nire inspirazio iturria. Gainera, iraukortasunak, bere osotasunean, dezente kezkatzen nau, eta honen inguruan irakurtzea eta filmak ikustea gustuko dut.

Zerk animatuta aurkeztu zinen Bizikletarte lehiaketara? Lehenengo aldia da?

Enpresen zuzendaritzan eta kudeaketan gradua amaitu berri dut Bilbon. Hango liburutegi eta kultur etxean ikusi nuen kartela, eta lehiaketan parte hartzea erabaki nuen. Hasiara batean, informazio sakonagoa eskatu nuen lehiaketaren inguruan, eta nirearen gisako profila zuen pertsona batek parte hartu ahal zuen ere galdetu nuen, profil artistiko edo sortzaileago bat edukitzea eskatuko zutelakoan. Eta bai, noski, Bizikletarten proiektua aurkezten dudana lehenengo aldia da.

Horrelako ekimenek herritarrok ingurumenaren inguruan kontzientzia hartzeko balio dezaketela uste duzu?

Nire ustez, honelako ekintzek gai askoren inguruan hausnartzeko balio dute, hori delako interbentzio artistikoen helburua, azken finean. Beraz, ingurumenarekin loturik dauden gaien inguruan kontzientziatzeko ere erreminta erabilgarria dela uste dut.

LAUHORTZA

JUANITO GALLASTEGI
Abadea



Denpora, hegaz

Mutikotan, maiatzetik aurrera batez be, luze eta amaitu ezineko egiten jakuzan egunak, oporrak noiz helduko ete ziran. Noiz helduko ete da oporretako lehenengo eguna? Nik ez neban bete soldadutzarako legea, baina nire lagunengandik dakit, soldadutza amaitzeko egozala, hilabete bi edo lehenago hasten zirela gelen hormetan-eta jartzen, ez bakarrik zenbat egun, baita zenbat ordu eta minutu geratzen jakezan be. Eta luze egiten jaken egoera hori. Misterioa da, bere alderdi guztiei begira, denporea zer dan. Aristoteles baino askoz lehenagotik hasi eta gaur egunera arteko bururik argienek jardun dabe denpora zer dan aztertzen. Amaibako zerrenda jarri leiteke. Eta zelako gauza sakonak eta bitxiak esan dabezan denporari buruz! Beste milaka hausnarketan artean, honako sailkapena be egin dabe batzuek: munduaren denpora, denpora historikoa eta denpora sikologikoa. Azken honi buruz, zer esan? Honako hau bai behintzat: alde ikaragarria dagoala umetatik zahartzarora. Beste horrenbesteko alde, edo handiagoa, atseginez dagoanaren eta minez dagoanaren artekoa. Orain urtebete jazo zana lehenengo aste batean jazotakotzat jotzen dogu zaharrok. Orain hamar urtekoa, orain urte bi jazo zala uste dogu. Gazte askok entzutez be ozta-ozta ezagutu leikien berrogei urteko diktadura sasoi, guretzat herenegun bertan bizi izandakoa da. Hemengo eta munduko gerra ikaragarriak be, lehenengo batean gertatutakotzat doguz. Abiada ezbardineko erlojuak ete doguz, ba? Edo, baita, atseginez gagozanean erloju bat eta minez gagozanean beste bat? Adinean zenbat eta nagusiago, zorabiatzekoa da bizitzak hartzen dauan abiadura. Hegaz doala dirudi. Eta gelditzeko galgarik ez. Hausnarketa gai asko emoten deuskuz denporak, sikologikoa deritxonak batez be.





ARAZAGI lehiaketa **KI 2016**



DURANGALDEA IRUDITAN

Durangaldeko hamairu herritako argazkiak aurkeztu beharko dira irailaren 30a baino lehen. Informazio gehiago: anboto.org webgunean.

SARIA 500€